# ...eta Kitto!

2018-XI-16 1077 zkia.



# Gastro-lehiaketak sasoi betean


**2 mó graduatu**
erreflexuen aurkako lenteekin

**99€**

**mó**




Bidebarrieta, 2 • Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

ARRASATE • BERGARA • BEASAIN • DONOSTIA • ERRENTERIA
IRUN • LASARTE-ORIA • ORDIZIA • TOLOSA

**multiópticas**
lehena zerbitzu optikoetan

www.multiopticasgipuzkoa.com

# IRAZABAL
clínica dental





**Ainhoa Zulueta**
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian, Periodontzian, inplantologian.
**Leongo Unibertsitatea.**
Diplomatua Aho Kirurgian.
**Bartzelonako Unibertsitatea.**
Hortz-Estetikan Diplomatua.
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**
Hortz-Estetikan Diplomatua.
**Autran Institutoa. Bartzelona.**
Etengabeko Formakuntza.
**New York-eko Unibertsitatea.**
Oklusioan Graduondoa.
**Aníbal Alonso Doktorea.**

**Astelehenetik ostiralera:**
**8:00**etatik **22:00**etara
**Zapatuetan:**
**10:00**etatik **14:00**etara

# Familiaren Osasuna

## Zure familiaren ahoaren osasunaz arduratzen garelako

**Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu**

**Facebook**en: Clínica Dental Irazabal   Eta **twitter**en: @ClinicaIrazabal



**FINANTZIAZIO BEREZIA.** **Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak.** **GALDETU**

IRAZABAL
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**

...eta kitto! Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:**
...eta kitto! Euskara Elkartea.

**HELBIDEA:**
Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

**ADMINISTRAZIOA:**
Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**
Ana Aizpurua

**ERREDAKZIO-BURUA:**
Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA**:
J.L. Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**
Malen Jainaga
eta Malen Illarramendi

**HIZKUNTZA ARDURA:**
Juan Andres Argoitia
eta Maider Aranberri

**PUBLIZITATEA:**
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

**TELEFONOA:** 943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA:**
Silbia Hernandez

**BANAKETA-ARDURA:**
Mohammed El Ghabali

**TIRADA:** 8.200 ale

**INPRIMATEGIA:**
GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.
**ISSN:** 1132 - 1679

*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria*

EIBARKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

# eskutitzak

## – Euskal Herrian duin bizi –

Kaixo, gazte! Nora doaz zure bizitzaren koordenadak? Nork markatuta?

Euskal Herrian biziraun baino, bizi nahi dugun gazteok argi daukagu gure desira eta espektatibak gizarte kapitalista eta heteropatriarkalak diktatuak direla. Nahiz eta gure bizitza eta hau gidatzen duten erabakiak gure esku daudela saltzen diguten, beren eskemen barruan nahi gaituzte, eurek ezartzen dituzten arauekin jokatzen.

Eibarren hiri ereduaren aldaketa ukaezina da azken urteetan, komertzio guneak, super-supermerkatuak, Inditexen dendak... zabaldu eta ugaritu dira, gure aisia kontsumismora bideratuz eta lana aldiz, sektore honen zerbitzura. Jakina da multinazionalen lan baldintzen prekarietatea: ordutegi amaigabeak, zabor-kontratuak, soldata barregarriak (edo hobeto esanda, negargarriak), etab.

Gure aurreko belaunaldiek borrokaz lortutako eskubideak egunero borrokatu behar ditugu, gure bizitzak kolpatzen dituzten politika neoliberalen aurrean, gazteria borrokalari bat izango dute.

Eibartar gazteok argi daukagu kapital handiek eskaintzen diguten eredua ez dela nahi dugun kontsumo, lan, zein bizi eredua. Elkartasunean, parekidetasunean, bizipozean eta askatasunean zentratzen den bizitza eraikitzeko hautua egiten dugu eta multinazionalek inposatzen duten ereduak ez du tokirik gure eredu honetan.

Azaroaren 23an, Black Friday ospatzen dute zenbait merkatalgunek. Kapitalismo zentzugabearen beste erakusgarri basati bat. Ez gaitzatela engainatu gure mesedetara dagoen zerbitzu bat dela esanaz, euren kontsumo eredua saldu nahi baitigute, gutxi batzuek gure kontura aberasten jarrai dezaten.

Bakarrik ezin dugu, elkarrekin bai. Animo eta kalean ikusiko dugu elkar. Aurrera!

Eibarko Ernai

# Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**MASMA-ZULO**.- Hodi itxurako amarauna. *"Goizeko ihintzarekin masma-zuluak, perlaz jositta balegoz letz agertzen dira"*.
**MASMARATXA**.- Amarauna. *"Pare bat euli harrapauta dagoz masmaratxan"*.

# astean esanak

"Euskaraz aritzeko kontzientziak ezin harrapatu ditu jolas-ordu guztiak edo estualdiak, edo oihu egin beharreko orduak, edo neurri gabeko poz edo etsimenduzkoak, onerako edo txarrerako samurraldi gordinenak, ostiaputako amorrazioak. Ez du eskurik doinu zuri neutro batetik haratagoko esanetan: hor ez da euskararik ahoraino iristen. Erregistro informalen eskasia -edo gabeziaez da gaitz arina, euskarak duen arazorik larriena baizik. Erregistro informalak lantzeari erabateko lehentasuna eman behar genioke"

(Iñaki Segurola, filologoa)

"Ordu bertsuan ematen dute *Ahoz aho* ETB-1ean eta *Está pasando* ETB2-an. Ez da asko begiratu behar zein desberdinak diren antzemateko. Bigarrenean bortitzagoak dira tonuak eta moduak, zikinagoak eztabaidak. Zaila egin zait saio hori bera euskaraz izan zitekeenik pentsatzea. Euskal kazetaritza ez ote da, jendartea denarena bainoago, jendartea izan behar lukeen horren isla? Baten batek esana da bi eduki mota daudela: zikin sentsazioa eragiten dizuna eta ondo sentiarazten zaituena. Seguru izan ETB-1 hautatzen duenak ez duela izango eguneko bigarren dutxaren premiarik"

(Lander Arretxea, zutabegilea)

"Maorien komunitateetan eta kultura polinesiarretan rolak eta praktikak mendebaldeko ikuspegi eta eskemetatik kanpo, beste molde batzuetan antolatu izan dira. Jatorrizko tribu eta senitarte zabaletan *takatapuiak* (homosexualak) zeuden, euren izaera eta rol aitortuekin, baina kolonizazioarekin estigmatizatuak izan ziren. Egun euren sexu-genero identitatea eta, ondorioz, sexu praktikak era heteroarautik at kokatzen dituztenak dira *takatapuiak*. 80ko hamarkadatik aurrera diskurtso ez-kolonialetik egindako berrinterpretazioei esker, euren leku eta duintasuna berreskuratzeko bidean dabiltza"

(Imanol Miner, hizkuntza teknikaria)

## Ospittala ezagutu nahi dabenendako bisitak antolatu dittue



**Eibarren ospittal barrixa zabaldu dabela eta, zelakua dan ikustera juan nahi daben  herritar guztiendako** bisitak antolatu dittue Debabarrena ESIko Zuzendaritzakuak. Martitzenian, eguaztenian, eguenian eta hurrengo asteko martitzenian (27xan) izango dira bisitak eta bi ordutegi dagoz aukeran: 16:00etatik 17:00etara edo 17:00etatik 18:00etara. Bisitak ahalik eta onduen antolatzeko, interesa dakeneri aurretik izena emotia eskatu detse. Horretarako, BisitakEibar.OSIDEBABARRENA@osakidetza.eus helbidera idatzi bihar da, herrixa, izena, bi abizen eta bisita egitteko aukeratzen dan eguna zein ordua ipiñitta.

## Gazte mugimenduaren 40 urtieri errepasua emoteko mahai-ingurua




**Eibarko Ernaik mahai-ingurua antolatu dau azaruaren 24rako (zapaturako), 12:00-xetan Arrate Kultur Elkartean.** Aurten 40 urte bete dira Euskal Herrixan, herririk herri, hainbat gaztek independentzia eta sozialismuaren bidian antolatziari ekin zetsela eta, "Bulkada berrien garaia da!" izenburuko saiuan *"gazte mugimendu errebelde horretan metatutako esperientzia eta bizipenak elkarbanatzeko asmua"* dakela aurreratu deskue. Diñuenez, *"kontu eta pasadizo ugari bizi izan dittue Eibarren antolatu diran gazte antolakunde desberdiñetako militantiak. Sasoi bakotxak bere ezaugarrixak eta bere testuinguru partikularra izan dittuala kontuan izanda, sasoi hartako militantzia zelakua zan ezagutzia aberasgarrixa izango dala pentsatzen dogu, baitta orduko eta gaur egunekuen artian daguazen ezberdintasunak mahaigaiñeratzia eta hausnarketa kolektibua bultzatzia"*. Datorren asteburuan egingo daben ekimena, udaberrira arte luzatuko dan dinamikaren hasieria baiño ez dala izango gaiñeratu dabe, izan be datozen hillabetiotan "Bulkada berrien garaia da!" goiburuari jarraittuta ekintza gehixago antolatzeko asmua dake.



## Joko-arazuekin laguntza emoteko taldia Eibarren biltzen hasi da

**Euskadiko Jokalari Anonimuak eta Famelixakuen Alkartiaren barruan**, jokuarekin arazuak dittueneri eta euren famelixakueri laguntza emoteko daguazen taldiak Eibarren batzen hasi dira, San Andres elizako lokaletan. "Egun bat" izenekua Elgoibarren egon da martxan urtiotan, baiña han lokal barik geratu dirala eta, azkenian Eibarren segiduko dabe premiñia dakanari laguntza emoteko biharrian. Billerak astian birrittan egitten dittue, martitzenetan (18:30xetan) eta zapatuetan (17:30xetan) eta nahi daben guztiak dauka parte hartzeko aukeria. Bestela be, taldeko arduradunekin kontaktuan ipintzia nahi izanez gero, 699 377 520 telefono zenbakira deittu leike.



## Ederto ibilli ziran 1944an jaixotakuak

**Aurreko zapatuan alkartu ziran 1944an jaixotakuak** euren jaixa ospatzeko. Eguardixan Arkupe tabernan alkartu eta zapixak banatu eta gero, piskolabisa hartu eta Untzagara juan ziran, taldiaren argazkixa egittera. Bazkarixa, barriz, Unzaga Plaza hotelian euki eben.



## Bizigune programia sustatzeko neurrixak hartuko dittu Udalak

Alokabide Eusko Jaurlaritzaren menpeko soziedade publikuaren programia da Bizigune, eta hutsik daguazen etxebizitzak eskuratzia eta babestutako alokairuaren bittartez merkaturatzeko helburua dauka. Eibarren erabilli barik daguazen etxiak erabilli eta alokairua sustatzeko asmuarekin, Udalak Bizigune programia gurian bultzatzeko hainbat neurri hartuko dittu, Alokabiderekin alkarlanian. Horretarako, bestiak beste, Bizigune programiaren nundik norakuak azaltzeko informaziñua banatuko dabe etxietara, Udalaren webgunian Bizigune programara zuzenian juateko loturia sortuko dabe eta Pegorako bihargiñak programaren inguruko informaziñua jasotzeko saiuak egingo dittue, galdetzen dabeneri informaziño osua emon ahal izateko.

**asteko 1.875.338 datua**

*euro fakturatu dittu oin arte Eibarko Networking BNI Armaginek sortu zala bi urte betetzen diran honetan. Kopuru horretara heltzeko 868 erreferentzia sortu dittue; bakotxak, beraz, batazbeste 2.160 euroko negoziua eragin dau. Eibarko BNI Armagineko taldia eguen goizero jarraitzen dau biltzen El Corte Inglesean.*

# autuan

### KANTABRIAKO ETXEKO BAZKIDIAK

Kantabriako Etxeko bazkidiak Gabonetako loterixa-partizipaziñuak jaso ahal dittuela abisau dabe zuzendaritzakuak. Horretarako Ipuruako bolatokira juan biharko dira, astelehen eta eguaztenetan, 19:00etatik 20:30xetara.

### 1937-XAN JAIXOTAKUEN BAZKARIXA

Azaruaren 23an alkartuko dira 1937xan jaixotakuak eta, bazkarira juan nahi dabenak, 55 euro sartu biharko dittu Kutxabanken, ES2320955109009115389087 kontuan, izen-abizenak ipiñitta. Untzagan alkartuko dira, 12:30xetan, pañueluak banatu eta taldiaren argazkixa egitteko. Peña Txinberan piskolabisa hartu eta txikiteuan ibilliko dira, 15:00etan Unzaga Plaza hotelera bazkaltzera juan aurretik. Bazkalostian dantzan egitteko musikia egongo da.



## Errefuxiatuendako neguko arropak jasoko dittue bixar

**Errefuxiatueri laguntzen hiru urte daroiazen Zaporeak proiektuak eta CARE alkartiak** Euskal Herri maillako arropa bilketia antolatu dabe bixarko. "Jantzi negua" izenekuarekin neguko hotzari aurre egitteko arropa egokixak bildu nahi dittue, Grezian, Lesbos eta Chios uhartietan daguazen errefuxiatuendako eta Eibarren be jendiak eruaten dabena jasotzen jardungo dabe bixar, egun osuan. Jendiak emoteko dakazen arropak Untzagako jubilau etxeko 1. pisuan hartuko dittue, 10:00etatik 19:00etara. Ekimena antolatu dabenak haur, andra zein gizonendako arropak eskatu dittue, batez be negurako aproposak diranak, eta, horrekin batera, barruko arropa barrixak eruatia eskertuko dabe, horren premiñia dago eta.




## Tripontziak ekimeneko menu berezixak, hillaren 25era arte

**Azaruaren 25era arte egongo da martxan bosgarren urtez jarraixan antolatu daben Tripontziak ekimen gastronomikua.** Aurten bederatzi jatetxek egin dabe bat Debegesa Garapen Agentziaren eta Debabarreneko Klub Gastronomikuaren ekimenez Debabarrenian abiatu daben ekimenarekin eta, horren harira, kalidade haundiko menu berezixak eskinduko dittue, 28 eurotan. Tripontziak ekimenera batu diran jatetxiak honek dira: Azitain erretegixa (Eibar), Belaustegi jatetxia (Elgoibar), Bordatxo jatetxia (Deba), Hostal Itziar jatetxia (Itziar), Kanala jatetxia (Itziar), Lasturko Taberna (Lastur), Mendiola jatetxia (Ermua), Pikua jatetxia (Mutriku) eta Urgain jatetxia (Deba). Bakotxian eskintzen daben menua zelakua dan ikusteko, interneten, debabarrenaturismo.com/gastronomia helbidera jo zeinkie. Bestalde, menu berezixak ez eze, probatzen dittuenendako hainbat sari banatuko dittue, asmo horrekin antolatu dittuen zozketetan.




## Ana Muniozgurenek irabazi dau GazteON! gehigarriko lehiaketia

**Aurreko asteko gazteON! gehigarrixan estrenau genduan "Ezagutzen duzu... Eibar?" lehiaketia** Ana Muniozgurenek irabazi dau. Hortaz, saridunak bi sarrera jasoko dittu, abenduaren 15ian Astelena frontoian izango dan Gipuzkoan Gazte-Tour musika ekitaldirako. Bertan, 18:00etatik aurrera, Eibarko Parrapas erromerixa taldia, Twin Melody, Ba!Goaz eta DJ Txurru izango dira. Musika jaialdixa Eibarko Udalak antolatu dau, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Sailarekin batera, eta sarrerak dagoeneko salgai dagoz ohiko saltokixetan (Kutxabank eta Coliseo antzokiko txarteldegixan), 5 eurotan.





Malen Illarramendi

## Magosto jaixa ospatu eben asteburuan Galiziako Etxekuak

**As Burgas Galiziako Etxekuen eskutik, aurreko asteburuan ospatu eben gaztaiñak** protagonista dittuan "Festa do Magosto" Urkizu aldian. Eguraldixak ez zetsen larregi lagundu, baiña edozelan be, gaztaiñak eta jaixaren harira zabaldu eben txosnan saltzen zittuenak jateko eta edateko aukeria ondo aprobetxau eban jendiak.

## Moda desfilia eta poesia Untzagako Jubilau Etxian

**Gaur arratsaldian, 18:00etan hasiko da El Corte Inglesak babestutako moda desfilia** Untzagako jubilau etxian. Urteroko martxan, dendak lagatako arropak jubilauak jantzi eta erakutsiko dittue, horretarako preparauko daben "pasarelan". Gaiñera, atsedenaldixa egitten dabenian iñor ez aspertzeko, Untzagako jubilauen gitarra taldiak emanaldixa eskinduko dau. Eta bixarko, barriz, poesia errezitaldixa antolatu dabe. Itzamna poesia taillaren eskutik egingo daben saiua 18:30xetan hasiko da eta hainbat poetak hartuko dabe parte. Gaiñera, errezitaldixa dala eta, Maite Arrizabalagak horretarako bereziki kuadro bat margotu dau eta bixar erakutsiko dabe.


*Arrakasta izaten dau urtero moda desfiliak.*




## Errebalerako dittuan proposamenak gogoratu dittu Bilduk

**Errebalgo proiektuak kapitulu barrixak idatziko dittu laster (Udalak lanetarako baldintzak ziheztu** eta laster lehiaketara etarako dittue) eta, "PSEren kudeaketa eskasa ezagututa", honen inguruan dittuan proposamenak gogoratzeko agerraldixa egin eben EH Bilduko ordezkarixak aurreko astian. Adierazitakuaren arabera, *"Udalak bere esku dittuan tresna guztiak erabilli bihar dittu eta, horretarako, plieguak zaindu egin bihar dira"*. 2013an egindako parte-hartze prozesuan adostu ziran puntu nagusixak be ekarri zittuen gogora: *"Batetik, proiektuak basarritarrekin erlaziño zuzena izan biharko dau eta, horrekin batera, Rialton irabazi daben ikusgarritasuna eskinduko detsen tokiren bat eukiko dabela bermatu biharko dabe"*. Horretarako, ezinbestekua ikusten dabe Rialton daguazen basarrittarren postuak duintzia eta, asmo horrekin, 2019rako aurrekontuan Rialtorako inbersiñuak egitteko partidak derrigorrez jaso biharko dittuela pentsatzen dabe. Aittatutako horrekin batera, bertako produktuen eta produktu ekologikuen sustapenak dakan garrantzixa azpimarratu nahi dabe, eta Azpeitiko Plazia hartu eben eredu modura: *"Eibarren be Elikagune bat sortzeko aprobetxatu bihar dogu, 100 kilometroko itzulinguruan ekoitzitako produktuekin edo, gitxienez, bidezko merkataritzako produktuekin"*. Eta, beste kontu batzurekin batera, Errebalen sortuko dan espazioak belaunaldixen arteko erlaziñuak sustatzeko euki leikian rolari be erreparatu nahi detse.

Funeraria·Ehorztetxe Mugica
EIBAR
ELGOIBAR
Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27
Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Bulegoa Eibarko erdialdean
Bulegoa Bidebarrieta, 20
24 orduko zerbitzu iraunkorra
943 20 19 51 www.funeuskadi.com
Euskadiko Lehen Ehortze Taldea
GRUPO Funeuskadi

centro médico eibar
URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreak / 1. solairua
943 12 02 00 Faxa: 943 12 02 04
1) Kardiologia
2) Zirugia
3) Dermatologia
4) Dietetika / Nutrizioa
5) Analisi Klinikoak
6) Ortodontzia
7) Otorrinolaringologia
8) Psikiatria
9) Barne Medikuntza
10) Radiologia
11) Urologia
12) Traumatologia
13) Koloproktologia
14) Erizaintza
15) Foto-depilazio Unitatea
16) Ginekologia BERRIA
17) Psikologia BERRIA



# Infernua paradisuan

Bizitza ez da gozoa izan Benitarentzat. Bere istorioa ez da batere atsegina, nahiz eta pertsona irribarretsua izan. Gurasoen tratu txarrak jasan zituen; haurra zenetik gogor lan egitera behartu zuen familia batekin hazi zen; 15 urterekin maite ez zuen gizon batekin ezkondu zuten; bizia arriskuan jarri zuen Eibarrera heltzeko eta gure artean pasatu zuen lehen urtean, bere jaioterriko etxea galtzeaz gain, umiliazioak jasan zituen. Benitak, ordea, aurrera egin du eta zoriontsu dela esan digu.

### Turisten gozamenerako hondartzak

Dominikar Errepublikako Samana probintzian jaio zen Benita de los Santos Drlla (edo Ana Julia, horrela ezagutzen dutelako lagunek). Klima tropikalarekin, hondartza zuri eta urdin turkesa koloreko itsasoarekin, oso toki turistikoa da, baina Benitak dio dominikarrentzat zaila dela paradisuaz gozatzea. *"Gure egoera ekonomikoa ez da batere ona eta turistek bakarrik gozatzen dute han daukagunaz. Ezin dugu bainu bat ere hartu, dena hotelen eskuetan dago eta guretzat garestiegia da"*.

### Haurtzarorik ez

*"Ez ditut gurasoak maite"*. Istorio gogorra dago esaldi mingarri honen atzean. Benita Samanako Arroyo Barril herrian bizi zen 18 anai-arrebekin eta, bere berbetan, *"nire gurasoek ez zekiten umeak hezitzen eta tratu txarrak jasaten genituen"*. Anai-arreba asko zirenez, euretako asko beste familia batzuekin hazi ziren, baita Benita ere. *"Ez ditut anai-arreba batzuk ezagutzen"*. Sansouci herriko familia batekin bizi izan zen 14 urte bete arte eta euren neskamea izan zen. Ez zioten eskolara joateko aukera eman, ezta jolasteko ere. *"Ez nuen haurtzarorik eduki"*.

### Bizitza arriskuan Eibarrera bidean

Benitak dioenez hango soldatekin kosta egiten da hilabete amaierara iristea eta, *"Europan dirua irabaziko dugula entzutean, antxitxiketan etorri nahi dugu"*. Propietate bat saldu eta bankuan mailegua eskatu zuen bidaia ordaintzeko. *"Behar nuen diruaren erdia lortu eta etxea utzi nuen abal moduan"*. Zuzenean Madrilera joango zela esan zioten, baina engainatu egin zuten eta odiseak hainbat hilabete iraun nuen. *"Turkiara heldu nintzen eta bi hilabete egin nituen han jende askorekin toki berean bizitzen. Lurrean egiten genuen lo. Greziara ezkutuan sartzea zen gure helburua, askok bizitza galdu duten tokitik. Oso gogorra izan zen (hotza, beldurra, gosea…), etsitzeko zorian egon nintzen, poliziak harrapatzea nahi nuen hura behingoz amaitzeko, baina azkenean lortu genuen pasatzea"*. Grezian beste bi hilabete egin zituen eta, irten ahal izan zenean, Eibarrera iritsi zen.

**"Querer es poder"**

**"Zerbait nahi baduzu, lortu dezakezu"**

### Etxea galdu eta umiliazioa jasan

Eibarrera heltzean ez ziren gauzak hobetu. *"Emakume baten etxera joan nintzen bizitzera eta bere familiaren kargu egin nintzen. Urtebete egin nuen eurekin eta zoratu egin nintzen. Negar asko egin nuen"*. Abal moduan utzitako etxea ordaintzea zen Benitaren asmoa, baina nahiz eta egun osoan lan egin, ezin izan zuen, *"eta etxea galdu nuen"*. Hala ere, emakume honen etxetik irten ahal izan zen lagun bati esker eta gogor lan eginez aurrera egin du. *"Umiliatu egin naute, gauza txarrak esan dizkidate, oso sasoi latzak pasa ditut… baina horrela iritsi naiz hona"*, dio irribarretsu.

### Eibarren luzerako

Umea zenetik gogor egin du lan Benitak, ez du beste ezer ezagutu. Garbitzen, beste pertsona batzuk zaintzen, josten, ilea apaintzen… lanerako gogoa eta trebezia ez zaio falta izan, eta horrela egin du aurrera. Zazpi urte daramatza Eibarren eta sei seme-alabetatik bost ditu hemen. *"Hemen irabazitako guztia eurentzat gorde dut, ez ditut 15 euro ere eduki niretzat"*. Horrela, seme-alabek ez dute Benitak pasatakoa bizi behar izan hona iristeko. Eibarren jaiotako ilobak ere baditu eta ez du beste inora joan nahi. *"Oso pozik nago hemen, ez dut Dominikar Errepublikara bueltatu nahi"*.

# Eibartarren topaketa zaporetsua





Mundu guztiko osagarriak batu ziren domekan 'Bizilagunak' egitasmoa Eibarren egiten den hirugarren edizioan. Etxeetan eta elkarte gastronomikoetan elkartu ziren jatorri ezberdineko 75 lagun (inoiz baino gehiago): marokoarrak, senegaldarrak, egiptoarrak, kanariarrak, kolonbiarrak, brasildarrak, costarricarrak eta euskaldunak.

Jatorri desberdina duten lagun eta familien arteko topaketa da 'Bizilagunak', eta elkarbizitza eta elkar ezaguera sustatzea da asmoa. Horretarako, aldez aurretik ezagunak ez diren familia biren arteko bazkaria antolatzen da.

Domekan 13:00etan ezagutu zuten elkar gonbidatzaileek eta gonbidatuek, eta euren arteko harremana atsegina izan zen hasieratik. Untzagan talde argazkia atera eta gero, gonbidatzaileek euren etxe edo elkarte gastronomikoetara eraman zituzten gonbidatuak. Munduko toki askotako jakiak dastatzeko aukera izan zuten parte-hartzaileek eta kultura, ohitura eta istorio ugari ezagutzeko esperientzia ezin hobea izan zen.

Eibarren dagoen kultura aniztasuna agerian geratu zen 'Bizilagunak' ekimenarekin eta zapore gozoarekin amaitu zuten eguna egitasmoan parte hartu zuten Eibarko bizilagunek.













Datorren astean 1.210 kilo azukre banatuko ditu …eta kitto! Euskara Elkarteak Eibarko 87 tabernatan. Banatuko diren 151.200 azukre poltsek Euskeraz Primeran! slogana edo goiburua eramango dute. Poltsatxoaren atzeko aldean euskeraz hitz egitera animatzen duten esaldiak irakurri ahal izango dira: "Zuk neri, nik zuri euskeraz", "Geurea delako, erabili", "Euskera gora bihotzetik ahora"… Azukre poltsatxoetan ez ezik, ahozapi edo serbilletetan ere ikusiko da Euskeraz Primeran! goiburua, taberna bakoitzean 600 ahozapi inguru banatuko baitira. Kanpaina hau 2015ean egin zuten lehen aldiz eta, izandako arrakasta ikusita, aurten berriro ere egitea erabaki dute.



# 150.000 azukre poltsa euskeraz gozatzeko

"EUSKERAZ PRIMERAN" **Eibarko ostalaritzan eta dendetan euskeraren erabilera bultzatzeko ekimena da.** 2017-2018 ikasturtean, paisaia linguistikoa euskalduntzeko asmoz, Euskeraz Primeran! kanpainan parte hartzen duten denda eta taberna guztiak bisitatu ziren, guztira 385. Kanpainaz …eta kitto! Euskara Elkartea arduratzen da, Eibarko Udalaren laguntzarekin. …eta kitto!-ko teknikariek azaldu digutenez, *"dendetan eta establezimenduetan sartzerakoan herritarrak konturatuko ziren bezala, Euskeraz Primeran! pegatinetaz gain, `zabalik/itxita´ karteltxoa jarrita dago ateetan, euskera hutsean. Herriko 260 lekutan banatu ditugu karteltxo hauek. Horrez gain, dendarientzako hainbat itzulpen-lan, kartel eta ohar-eskaera egin ditugu. Aurreko ikasturtean gehienbat dendetan eragin genuen, baina tabernetan beste zerbait egin behar zela ikusi genuen. 2015ean arrakasta handia izan zuen azukrearen eta serbilleten kanpainak eta errepikatzea erabaki dugu. Banaketa lana datorren astelehenean hasiko dugu tabernetan eta asteazkenean amaitzea espero dugu. Tabernariei eskatzen diegun gauza bakarra azukrea eta ahozapiak ahalik eta arinen erabiltzen hastea da"*.

### Lehen hitza euskeraz

Euskeraz Primeran! ekimenaren helburua euskeraren erabilera bultzatzea da. Gutxienez, lehen berba euskeraz izatea: *"Hori euskera ulertzen ez dutenek ere egin dezakete. Ulertzeko gauza dena, nahiz eta kamareroak euskeraz egin eta berak gazteleraz, elkarrizketa elebidunak ahalbideratuko dira, eta euskera ulertu eta euskeraz hitz egiteko gai dena, ohitura aldatu eta euskeraz egitea da helburua"*. Azken finean, ohiturak aldatzeko helburuarekin sortu zen Euskeraz Primeran! eta orain nazio mailako kanpaina bat dagoenez, Euskaraldia, eta euskeraren eguna ere tartean dagoenez, *"aldi berean egitea onuragarria izango dela uste dugu"*, esan digute kanpaina aurrera eramateko lanean dihardutenek.

2.000 euroko
Gabonetako OTARRA




Gaur eta bihar kalean erosteko aukera
Gaur (19:00-21:00) Bihar (13:00-14:00)
**SALMENTA LEKUAK:**
El Corte Ingles, Isasi okindegia,
Mujika eta Otegui harategiak,
Echetto eta Arriola prentsa,
Maria Ospitxal (Calbeton), Bolintxo,
AEK eta Udal Euskaltegia, Kultu,
Izadi loradenda eta ...eta kitto!
eta kitto! Euskara Elkartea
El Corte Inglés

Slow Food®

# Azaroaren 28an

## EIBARKO SLOW FOOD KOMUNITATEA

Lekua: Eibarko Udaletxea (behe solairuko erdiko patioa)
Ordutegia: 09:30 - 13:30 eta 15:30 - 19:00
Sarrera doan / Kopuru mugatua, toki guztiak bete arte




- *dastamen-tailerrak*
- *praktika egokiak*
- *konferentziak*
- *hitzaldiak*

antolatzailea:

EIBARKO UDALA

kolaboratzailea:

DEBEMEN

SONRISALUD
INSTITUTO DENTAL AVANZADO



Heldu.
Tratatu.
**Koloreztatu.**
Zure irribarrea diseinatzen dugu!



# Menu proposamen biribila, sukaldaritza txapelketen eskutik

San Andres jaien atarian, aurten ere udazkenerako menu biribila proposatuko digute sukaldariek, gastronomiari eskainita datozen egunotan egingo diren txapelketetan. Hasteko, **bihar goizean, 11:30etik aurrera Eibarko 3. Berakatz Zopa lehiaketa** egingo da Untzagan, Eibarko Sarek antolatuta. Eta **domekan,** Eibarko Bakillauaren Kofradixiak antolatuta, **XV. Eskolarteko Bakailao Txapelketa** jokatuko dute herriko ikasleek. Urtero bezala, Kofradixako kideek prestatu beharreko bakailaoa aurretik banatuko diete eta, bide batez, bakailaoa pil-pil erara prestatzeko jakin beharreko guztiak azalduko dizkiete lehiaketan parte hartzera animatu direnei. Eta, beste bi txapelketa tartean, gure artean horren estimatuak diren pintxoek protagonismo berezia izango dute domekan hasi eta ia hurrengo astebura ailegatu arte.



*Sukaldari gazteek domeka goizean izango dute kazola artean moldatzeko aukera.*










**Aurreko asteko zapatuan eman zituzten ezagutzera Bacalaos Alkorta Eibarko Hiria II. Pintxo Txapelketako finalerako aukeratu dituzten Debabarreneko ordezkariak:** "Baratze" (Eibar), "Viento Sur" (Elgoibar) eta "Sagarra" (Ermua). Hiru hauek izango dira, beraz, lurralde historiko bakoitzeko establezimendu txapeldunekin batera azaroaren 18an lehiatuko diren Eibar, Elgoibar eta Ermuko ordezkariak. Pintxo irabazleak, berriz, "Baratzeko Bakailaoa", "Munduko Txalupa" eta "Bakailao tortilla" izan dira, hurrenez hurren.

Gure eskualdeko 15 taberna eta jatetxek hartu dute parte aurreko asteko eguen eta barixakuan egin zen finalaurrekoan: Eibarko Kontent, Amesti, Baratza Gourmet, Trinkete eta Bossa Gastroteka; Elgoibarko San Roke Kafetegia, Viento Sur, Mahala, Ibai Ondo eta Sigma; eta Ermuko Sagarra, Kiska, London, Giroa, Mendiola eta Pata Negra.

Epaimahaikideak Mireia Alonso, Josu Mugerza, Jesus Portugal eta Aitor Buendia izan ziren eta, euren berbetan, *"Debabarreneko finalaurrekorako aurkeztu dituzten proposamenek kalitatea eta profesionaltasuna erakutsi dute eta, iazkoarekin alderatuta, pintxoak aurkezteko moduan zein zaporean hobekuntza nabarmena ikusi dugu, gure zorionik beroena parte hartu duten guztiei".*



*Hirugarrenez egingo da Berakatz Zopa txapelketa, bihar Untzagan.*

Txapelketa Eibarko Udalak, "Bacalaos Alkorta" enpresak eta Mireia Alonso Perez eibartar gastronomoak antolatzen dute, Solera Eibarresa, Selección Hinojal, Esther Galarza, Igartza Foodservice, Comercial Zabala, Gamarra Ostalaritza, Ondojan eta La Ruta Slowren laguntzarekin.










**Finala, berriz, domekan jokatuko da, 12:30-ean Eibarko udaletxeko patioan,** eta "showcooking" formatuko saioa izango da: nahi duten guztiek finalista geratu diren pintxoak nola prestatzen dituzten bertatik bertara ikusi ahal izango dute. Gainera, ekitaldira doazenekin Herri Epaimahaia osatuko da (12:00etan, ekitaldia hasi baino lehen), pintxoak dastatu eta Sari Herrikoia nork eramaten duen erabakitzeko. Horrez gain, txapelketarako epaimahai ofiziala Mireia Alonso (eibartar gastronomoa), Josu Mugerza (Elgoibarko "Belaustegi" Jatetxea), Alex Mujica (Iruñeko "La Cocina de Alex Mujica" Jatetxea), Josema Azpeitia (Ondojan.com) eta Jesus Portugal (Ermuko Lobiano Elkarte Gastronomikoa) sukaldaritzan adituek osatuko dute.

Finalean, gure eskualdeko hiru ordezkariekin batera, 2018an zehar Euskal Herriko



*"Baratzeko Bakailaoa" (Eibarko Baratze).*



*"Munduko txalupa" (Elgoibarko Viento Sur).*



*"Bakailao tortilla" (Ermuko Sagarra).*

beste eskualdeetan egin diren lehiaketak irabazi dituzten establezimendu hauek hartuko dute parte: Hondarribiko Gran Sol (Gipuzkoako Txapelduna), Durangoko Kobika (Bizkaiko Txapelduna eta 2017ko I. Edizioaren Irabazlea), Gasteizko El Portalon (Arabako Txapelduna) eta Iruñako El Merca'o de Pamplona (Nafarroa eta Euskal Herriko Txapelduna). Horiekin batera, antolatzaileek zortzigarren parte-hartzaile bat gonbidatu dute ekitaldira: Euskal Herriko Pintxo Txapelketaren azken edizioan saria jaso zuen Astrabuduako "Coppi", "Una de callos" izeneko proposamenarekin.

### Tabernarien pintxoak, martitzenetik eguenera

Eta asteburua igaro ondoren ere, ez zaigu pintxoekin gozatzen jarraitzeko aukerarik faltako. Izan ere, Arrate Kultur Elkarteak, Eibar Merkataritza Gune Irekia, Eibarko Udala eta herriko tabernarien laguntzarekin, **Eibarko XV. Pintxo Lehiaketa** antolatu du. **Martitzenetik eguenera** bitartean jokatuko




*27 tabernarik eman dute izena aurten.*

den txapelketan 27 taberna lehiatuko dira eta bakoitzak pintxo berezi bat prestatu du lehiaketarako. Hauek dira lehiaketarako izena eman duten tabernak: Akara, Albert, Amesti, Anardi, Arkupe, Aterpe, Baisi, Baratze, Beleko, Birjiñape, Chic, Chido, Depor, Dos de Mayo, Foxtter, Ipur, Iturri, Kontent, Koskor, Kultu, Slow, Su Beroa, Trinkete, Txaltxa, Txoko, Hirurok eta Lau Bide.

Lehiaketara aurkezten diren pintxoak hiru egunetan, martitzen, eguazten eta eguenean, lokaleko barran egon beharko dira, bezeroek ikusteko eta jateko moduan. Pintxoen prezioa, bestalde, 1'5 euro eta 2 euro artekoa izan beharko da. Epaimahaia Ruben Etxaniz, Unai Magunazelaia eta Josu Gimenezek osatuko dute eta, horrez gain, pintxoak probatzen dituzten bezeroek, bozka bitartez, publikoaren saria nori eman erabakiko dute. Irabazleei sariak San Andres egunean banatuko dizkiete eta hauek izango dira: Pintxo onenari saria (150 euro, diploma eta garaikurra); Bertako produktua hobekien erabiltzen duenari saria (150 euro eta diploma); eta Publikoaren saria (150 euro eta diploma). Gainera, bozka ematen duten guztien artean zozketa egingo dute eta irabazlearentzat beste sari bat egongo da.

4 saio

azaroak 17
zapatua
16:30 & 19:00

azaroak 18
domeka
16:00 & 18:30

PIRRITX PORROTX ETA MARIMOTOTS






AZKEN SARRERAK SALGAI
(8,00 €)
Hezkuntza Esparruko TXARTELDEGIAN

Berba bi, euskeria eta liderrak alkartuta sortu eben eusLiderrak, Ahize-AEK hizkuntza aholkularitza zerbitzuko egitasmuari izena emoten detsan berbia. Eta zein da liderra euskera kontuetan? Galderiari errez erantzuteko moduko definiziñua izan leike hauxe: bere ingurukuak euskeria erabiltzera bultzatzen dittuan pertsonia, ahal daben guztietan euskeraz bizitzeko ahalegiña egitten dabena, horretarako mintzakide dittuanak erakarri bihar badittu be.

# Gaztiak euskaraz jardutera animatzeko **EUSLIDERRAK** preparatzen dihardue

Sarrittan, inguru euskaldunian bizi eta euskeraz berba egitteko gogua eukitta be, jakin badakigu ez dala beti erreza izaten holan jokatzia. Eta gu bizi garan ingurua euskalduna ez bada edo euskeria gitxi erabiltzen bada, orduan are gatxagua egingo jaku gure asmo horren arabera jokatzia, ixa eziñezkua ez esatiarren. Hizkuntza jokabidietan gauzak zelan daguazen oso ondo dakixe Ahize-AEK hizkuntza aholkularitza zerbitzuko kidiak eta, horregaittik, hizkuntza erabillera ohitturak euskeraren mesederako aldatzen laguntzeko asmuarekin sortu eben eusLiderrak izeneko egitasmua oin dala urte batzuk. Proiektuaren abiapuntua 2010ian Berrizko Udaleko bihargiñekin martxan ipiñi zan egitasmo pilotua izan zan eta, proba modura egindako esperientziak emaitza onak jaso zittuala ikusitta, egitasmua zabaltzia erabagi eban Ahizek eta holan sortu zan eusLiderrak izena be, 2011n. Egitasmuaren arduradunak diñuenez, *"eusLiderrak proiektuaren helburua euskeriaren erabillera informala areagotzia da, horretarako pertsona bakotxaren hizkuntza jarreran eraginda, ondoren euretako bakotxak bere inguruan dittuenengan eragitteko"*.



*Ikasturte honetan 3. maillan daguazen ikasliak, datorren urtian kurtso horretan egongo diranendako eredu izatia billatzen dabe egitasmuaren arduradunak. Argazkixan, Itzioko eusLiderrak*

Hori lortzeko, tresnak eta baliabidiak eskintzen detsez taillarretan parte hartzen dabeneri. Egitasmuaren arduradunen berbetan, *"eusLiderrak egitasmua kontratatzen dabenen kezka nagusixa zera izaten da: Hizkuntza gaitasuna dakenak ez dabela euren inguruan euskeria erabiltzen"*. Egoera horreri bueltia emoteko laguntza billa jotzen ei dabe eurengana: *"Bezeruak hizkuntza portaera hori aldatuko daben zeozer billatzen dabe, laburra eta eraginkorra"*. Euren arabera, *"errazagua da bestelako portaera bat sortzia daguana aldatzia baiño"*.

EusLiderrak-en metodologixiak hainbat formatutara egokitzeko aukeria emoten dau, hartzailliaren premiñen arabera: Hitzaldi modura planteau leike, hausnarketa bultzatu eta aurreiritziak desaktibatzeko. Edozelan be, administraziño zein enpresetako bihargiñen artian ohikuena hiru saioko ziklua izaten da: *"Lehen saiuan hitzaldixa egitten dogu. Bigarrenian, barriz, billatzen dan aldaketia egitteko baliabidiak eskintzen jakoz partaidiari. Eta, hirugarre-*



*Ikasliak bideoak eta bestelakuak ikusi eta landu dittue klasian, euren hizkuntza ohitturak aldatzen laguntzeko eta euskeria oin baiño gehixago erabiltzeko. Argazkixan, Aldatzeko eusLiderrak.*




*Eibarren euskera gitxi entzutzen dala pentsatzen dabe gaztiak eta hamendik kanpora doiazenian, beste herri batzuetan, euskeraz hamen baiño gehixago egitten dabela diñue. Argazkixan, La Salleko eusLiderrak.*

*nian, portaera barrixa indartzia billatzen da. Hortik aurrera laugarren saiua gehitzeko aukeria dago, ekintza ludikuagoa-edo, talde espezifikuaguen kasuan (kirola, aisia, begiraleak...), adibidez.*

*Hiru saioko bi fasek osatzen daben azken formatu bat be badago. Lehen fase batian, aittatu barri dogunari segitzen detsagu. Eta, ondorengo hirurak, bikoteka bideratzen dittugu, ekintza sozial bat antolatziari begira. Azken hori da batez be ikastetxietan egitten doguna, DBHko 3. maillako neska-mutillekin. Hortik boluntarioak urtetzen dira hurrengo kurtsoan, 4. Maillan daguazenian, hurrengo ikasturtian 3. maillakuen dinamizatzailliak izateko, ikaskide gaztiaguendako eredu izaten dira eta".*

### DBH-ko 250 ikaslerekin biharrian

Hain zuen be, Eibarko gaztien hizkuntza ohitturak aldatzeko asmuarekin dabiz eusLider egitasmua gurian lantzen, DBH-ko 3. maillako ikasliekin (lehengo Mogel-Isasik, Itzio BHI-k eta I. Zuloaga institutuak osatzen daben Eibar BHI-ko, Aldatzeko eta Azittaingo La Salle-ko ikasliekin). Gaztiak euskeria gehixago erabiltzia lortzeko esperantzarekin dihardue alkarlanian AEK-Ahize hizkuntza zerbitzuak, Eibarko Udalak, AKEBAI plataformiak eta ikastetxiak.

Aste honetan, La Salle ikastetxekuekin martitzenian saiua amaitziarekin batera, 250 bat ikaslerekin lantzen diharduen egitasmuaren bigarren fasea agurtu eben. Hirugarren fasea aurrerago aillegauko da, baiña bixen bittartian, parte hartu daben ikasliak oso pozik dagoz esperientziarekin: *"Esperientzia oso ona izan dala pentsatzen dogu. Diapositibak, bideoak etab. Ikusi dittugu eta, horrekin batera, euskeriaren eta beste hizkuntza batzuren inguruko galderak jendiari egitten ibilli gara kalian, dana grabau eta gero beste ikaskidieri bideoa erakusteko".* Berez danak euskeraz ikasten daben arren, oso argi ikusten dabe eusLider eta antzerako egitasmuen premiñia: *"Azpeitin, Zumaian, Ondarrun... bizi ezkero, igual diferentia izango litzake, hara juaten garan bakotxian euskeria Eibarren baiño askoz gehixago entzuten dogu eta. Baiña hamen gaztiak batez be gazteleraz jarduten dogu, inguruko lagunak zeresan haundixa izaten dabe horretan".*





Markel Ruiz (argazkilaria)

# "Nire kabuz ikasi dut argazkiak egiten"

**Markel Ruizek 14 urte ditu, DBHko 3. mailako ikaslea da eta orain dela urtebete hasi zen argazkiak ateratzen, baina dagoeneko lortu du sari handi bat. Indalecio Ojanguren XXXI. Argazki Lehiaketan herri mailako bigarren saria eskuratu du, goi-mailako argazkilarien artean tokia eginez. Duda barik bultzada handia jaso du argazkilaritzarekiko duen maitasunak.**

*- Nolako lana egin behar izan zenuen saritutako argazkia egiteko?*

Argazki bat saritu arren, bost aurkeztu nituen lehiaketara (bat betegarri moduan bidali nuen). Argazkiek ez zuten elkarren artean zerikusirik, hau da, ez zuten gai bera jorratzen. Adibidez, argazki saritua fabrika batean atera nuen, baina beste batean auto baten piezak lurrean botata agertzen ziren.

*- Nola sortu zitzaizun saritutako argazkiaren ideia?*

Lagun bat eta biok hutsik dagoen tailer batean sartu ginen eta argazkiak ateratzen ibili ginen. Etxean argazkia ikusi nuenean asko gustatu zitzaidan eta ordenagailuan pixka bat moldatu nuen. Ez nintzen ideia batekin joan fabrikara, han inprobisatu nuen.

*- 'Atrapado en mi mente' da argazkiaren izenburua. Zer saiatu zara islatzen?*

Bilduma osoari jarri behar zitzaion izena eta lagun batzuekin pentsatu nuen zer jarri.

*- Argia, iluntasuna, hautsa... efektu berezia dauka zure argazkiak. Nola lortu duzu?*

Fabrikako lurrean porlan-hautsa edo horrelako zerbait zegoen eta lagunari ostiko bat emateko eskatu nion. Horrela lortu nuen argazkian ikusten den hautsaren efektu hori.




*- Ospe handia dute Indalecio Ojanguren sariek. Zer sentitzen duzu zure izena irabazleen artean ikustean?*

Horrelako lehiaketa batean parte hartzen dudan lehen aldia da eta amak irabazleen artean nengoela esan zidanean ezin nuen sinestu. Gero lagunei esan nien eta ez zioten garrantzi handirik eman (barreak).

*- Zer bultzatu zintuen argazkiak ateratzera?*

Orain dela urtebete gutxi gora behera mugikorrarekin argazki bat egin nuen eta nahiko ondo zegoela iruditu zitzaidan. Gero, argazki kamera erosi nuen eta edonora eramaten dut gaur egun.

*- Nolako argazkilaritza-ekipoa daukazu?*

Flasha ez daukat, adibidez, ez dudalako inoiz erabiltzen. Nikon D3400 kamera daukat 18-55 mm (f3.5) eta 70-300mm (f4.5) objektiboekin, eta bi tripode ditut baita ere.

*- Nolako argazkiak egitea gustatzen zaizkizu?*

Edozein. Denetariko argazkiak egiten ditut eta horrela ikasten dut.

*- Argazkilaritza klaseak jasotzen dituzu?*

Ez, nire kabuz ikasi dut, Youtubeko bideoak ikusten.

*- Badaukazu argazkilaritza munduko erreferenterik?*

Erreferenterik ez daukat, baina Clavero youtuberraren bideoak asko ikusten ditut eta inspiratzeko balio didate.

*- Diru-sariarekin zer egin pentsatu duzu?*

Dagoeneko gastatu dut dirua (barreak). Mugikor bat erosteko erabili dut, nahiko garestia delako. Hori bai, oso kamera ona dauka.

---

## GAIZKA VITORIA ARANO

*(II. urteurrena: 2016-XI-13)*



*URAK DAKARRENA*
*URAK DAROA / ZUK EMANDAKOA*
*GUREKIN GERATZEN DA*

*—ETXEKOAK—*



Gizalde Gipuzkoako boluntariotza agentziak ateak zabaldu zituen astelehenean. 20 urte bete ditu aurten agentziak eta bere zerbitzuak Debabarrenera hurbiltzeko asmoz zabaldu du Eibarko bulegoa (Ardantza kalea, 5 behea). Astelehenetan 16:00etatik 18:00etara egongo da zabalik eta goizetan bilerak egin ahal izango dira zita bitartez (gizalde.eibar@gmail.com). Hala ere, beharren arabera moldatu daitekeen ordutegia da Virginia Basurto Gizaldeko Eibarko bulegoko arduradunaren berbetan.



*Ardantza kalean du egoitza Gizaldek.* **Ekhi Belar**

# VIRGINIA BASURTO (Gizalde):
# "Gizarte parte-hartzailean sinisten dugu eta horretarako bidea da boluntariotza"

*- Zer da Gizalde?*

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Hezkide Eskolak garatu duten proiektua da, eta Gipuzkoan boluntariotza sustatzea helburu. Gizarte parte-hartzaile batean sinisten dugu eta horretarako bidea da boluntariotza. Bi gunetan egiten dugu lan, gizabanakoekin eta elkarteekin. Gizabanakoak gugana etortzen dira eta, euren nahien arabera, agente ezberdinekin kontaktuan jartzen ditugu erakunde edo elkarte batean edo bestean boluntario izateko. Bitartekari lana egiten dugu.

***- Elkarteei boluntarioen inguruan dituzten beharrak asetzen ere laguntzen diezue?***

Hori da. Eurek erabakitzen dute zein boluntario hartu, baina prozesua bideratzen diegu. Gainera, boluntariotza zer den azaltzen diegu elkarte eta gizabanakoei. Izan ere, elkarte batek boluntarioekin lan egiten badu, legediak esaten du seguru bat izan behar duela eta abar. Hau da, aholkularitza zerbitzua egiten dugu baita ere.

***- Formakuntza saioak eskaintzen dituzue?***

Gizaldek 20 urte daramatza martxan eta Donostian dauka egoitza, eta Debabarreneko herritar eta elkarteei zerbitzuak eskaintzeko zabaldu dugu orain Eibarko bulegoa. Bailarak zein behar dituen ikusten joango gara, baina Donostian formakuntza saioak egiten dira hilean behin eta ikusiko dugu Eibarko bulegoan horrelako saioak egitea komeni den, erakundeetan saioak eskaini behar ditugun edo dena delakoa.

> "Debabarreneko udaletan eta elkarteekin biltzen gabiltza euren beharrak ezagutzeko"

***- Eibarren bulegoa zabaltzeko beharra ikusi duzue?***

Boluntariotzaren inguruan galdera, nahi, behar edo kezka daukan eibartar batentzat ez da oso erosoa Donostiara joan beharra informazioa jasotzera. Tokian tokiko zerbitzua emateko eta Debabarreneko elkarte gehiagotara iristeko asmoarekin ireki dugu bulegoa Eibarren. Bailarako udalekin eta elkarte batzuekin berba egin dut dagoeneko, eta boluntariotzaren inguruan dituzten beharrak ezagutzen gabiltza.

***- Gipuzkoa mailan nolako beharrak daude boluntariotzaren inguruan?***

> "Boluntarioek eskubideak dituzte, baina baita betebeharrak ere"

Gizalderen webguneko 'Boluntariotza' atalean probintziako elkarteek dituzten beharrak jasotzen ditugu. Etengabe aktualizatzen dugun informazioa da.

***- Edonor izan daiteke boluntario?***

Bere denbora modu librean eta kontraprestazio gabe elkarte edo erakunde baten esku uzteko konpromezua hartzen duen edonor izan daiteke boluntario. Boluntarioek eskubideak dituzte (aseguratuta egotea, adibidez), baina baita betebeharrak ere (konfidentzialtasuna mantentzea, adibidez).

***- Zein motatako elkarteek jaso ditzakete boluntarioak?***

Gizartea eraldatzea helburu duten irabazi asmorik gabeko elkarteak izan behar dute. Boluntarioak aseguratu, zaindu eta formatzeko konpromezua hartu behar dute. Gainera, elkarteen egunerokoan murgildu behar dituzte boluntarioak, eta ezin dute lanpostu bat kendu euren jarduna integratzeko.

***- Beste zerbitzurik eskaintzen duzue?***

Elkarteei aholkularitza zerbitzua eskaintzen diegu, boluntarioen inguruan eta baita beste kontu batzuetan ere. Gainera, boluntarioekin lan egiten duten elkarteek ekintzak egiten badituzte, gure kanalen bitartez difusioa emango diegu eta materialaren mailegu zerbitzua ere badaukagu (mikrofonoa, bozgorailua, karpa... uzteko).

# On egin!



**GIDA GASTRONOMIKOA**
**...eta kitto!** eta **Barren** astekarietan
argitaratutako jatetxe eta tabernen gida
*2018ko azaroak 16*



## AGUIÑASPI taberna
Urkizu 22. EIBAR
**943 12 80 86**

Eguneko menua, menu berezia, gosariak, plater konbinatuak, razioak, bokatak, hanburgesak, pintxoak...



## ALBERT taberna
Armagin 1. EIBAR
**943 70 21 87**

Eguneko menua. Egunero plater konbinatuak, kazuelitak eta bokatak. Ostegunetik aurrera afariak, asteburuko menua eta karta.



## ARKUPE gastro pub
Isasi 2. EIBAR
**943 70 26 91**

Gosariak, eguneko menua, karta, talde-menua, plater konbinatuak, hanburgesak, catering zerbitzua.




## BAISI taberna
Urkizu 11. EIBAR
**943 53 08 16**

Espezialitatea: patata-tortilla, Entsaladilla, bokatak, hanburgesak... Ardoetan aukera zabala.



## BELAUSTEGI BASERRIA jatetxea
San Migel Gaina. ELGOIBAR
**943 74 31 02**

Ezkontzak, jaunartzeak, bataioak, urrezko eta zilarrezko ezkontzak, enpresa bazkariak eta kintoak. Karta, eguneko menua eta dastatze-menua.



## BIRJIÑAPE kafetegia-jatetxea
T. Etxebarria 16. EIBAR
**943 82 13 41**

Eguneko menua, bokatak, talde bazkari eta afariak, jaunartzeak, bataioak... Zure aurrekontura egokitzen gara. Etxerako zerbitzua: bapobapo.com.



## BOSSA gastroteka
Ego Gain 7. EIBAR
**943 20 67 53**

Etxean bezala. Gosariak, pintxoak, bokatak, razioak, pizzak eta hanburgesak.



## GABI jatetxea
Kalebarren plaza. ELGOIBAR
**943 74 12 30**

Hemengo jaki freskoekin egindako sukaldaritza. Jaunartzeak, bataioak, Lunch-ak, eguneko menua, karta, enpresa bazkariak...



## IBAI-ONDO jatetxea
Giza Eskubideen parkea 1. ELGOIBAR
**943 25 60 28**

Bazkari tradizionalak, parrilla, enpresa menuak, karta eta eguneko menua.



## KANTABRIA jatetxea
Arrate. EIBAR
**943 12 12 62**

Karta, menu bereziak, eguneko menua, enpresa bazkariak, ezkontzak, jaunartzeak, bataioak...



## KILI KILI croissanteria
Ibarkurutze 12. EIBAR

**943 20 24 01**

Eguneko menua, menu bereziak, gosariak, pintxoak, bokatak, afariak, txokolatea eta txurroak...



## LUZAIDE jatetxea
Mendarozabal z/g. MENDARO

**943 75 61 66**

Eguneko menua 12 € astegunetan. Asteburuetako eta jaiegunetako menua 14 €an. Pintxoak eta ogitartekoak arratsaldeko 20:00ak arte egunero.



## ONGI ETORRI taberna
T. Etxebarria 21. EIBAR

**943 20 70 07**

Gosariak, pintxoak, karta, talde-menua, catering zerbitzua...



## PAULANER garagardotegia
Ego Gain 3. EIBAR

**943 20 13 29**

Garagardoetan aukera aparta, gosariak, eguneko menua, espezialitateak, hanburgesak...



## PORTALEA taberna
Bista Eder 10. EIBAR

**943 20 68 68**

07:30etik zabalik. Eguneko menua. Ostiraletan hanburgesa menu berezia. Ostiral eta zapatuetan karta eta plater konbinatuak. Aste barruan enkarguz.



## SALENTO ristorante italiano
Pedro Migel Urruzuno 10. ELGOIBAR

**943 74 01 96**

Eguneko Menua, pizza italiarrak. Etxez etxeko banaketa aste guztian zehar.



## SIGMA jatetxea
Zizilion 1. ELGOIBAR

**943 74 85 31**

Jaunartzeak, bataioak, urrezko/zilarrezko ezkontzak, menua, karta, enpresa bazkariak, kinto ospakizunak.



## SU BEROA taberna
Bista Eder 11. EIBAR

**943 47 77 79**

Gosariak, eguneko menua, talde menua, pintxo bereziak, entsaladak, hanburgesak, razioak...



## TIRO PITXON jatetxea
Arrate. EIBAR

**943 20 88 59**

Eguneko menua, menu bereziak, karta, ospakizunak. Bi jantoki (bakoitzean 80 pertsona). Astelehenetan itxita.



## TXALTXA jatetxea
Isasi 7. EIBAR

**943 20 11 26**

Pintxoak, plater konbinatuak eta razioak
18 €tako eguneko menua
30 €tako asteburuetako menua
eta karta.



## Hotel TXARRIDUNA jatetxea
Ermuaranbide 1. ELGOIBAR

**943 74 04 90**

Eguneko menua, kinto ospakizunak, enpresa menuak, karta, bataio eta jaunartzeak.



## ZUBI GAIN taberna
Urkizu 11. EIBAR

**943 25 40 60**

Ogitartekoak, plater konbinatuak, tapak, entsaladak, pintxo bereziak...
Etxerako zerbitzua: bapobapo.com.



*iratxe gimenez*

“Espero dut Eibarrek irudi pertsonalarekin jarraitzea, eta ez globalizazioak ekarri dezakeen berdintsuarekin”

# Pilula sozialak

**Ostirala da eta jai daukat. Erosketa batzuk egin eta bizitzan dagoen plazer handienetariko bat** egiteko asmoa dut: bigarren aldiz gosaldu (kafesnea basoan eta palma olioz egindako opil industriala, noski) egunkaria irakurtzen dudan bitartean. Betiko lekuan hartuko dut egunkaria, Amañako kioskoan. Orain dela hilabete batzuk itxi dutela akordatu naiz. Harrezkero behin bakarrik ikusi dut bertako kioskeroa, Santi, eta birritan askotan berarekin hitz egiten zegoen loteria saltzailea. Bertan aldizkariak erosten koinziditzen genuen auzolagun asko ordutik ez ditut ikusi.

Tabernan sartu eta jubilatu bat gurutzegrama egiten dago egunkarian. Ebakia hartu eta etxera joango naiz, plazer erdi. Etxera gerturatzen nagoela arraultzak ahaztu ditudala konturatu naiz. Gure etxe bloke azpian ultramarinos dendatxo bat dago, bertan hartuko ditut. Ez, ez ditut hartuko orain dela urtebete zarratu zuelako.

Komertzio txiki hauen itxierarekin, auzo batek zerbitzuak galtzen dituela argi dago, baina azken urte honetan konturatu gara, gure auzokideen arteko harremanak eten egin direla. Peora berean bizitzeak, agurra eta eguraldiari buruzko elkarrizketa huts bat bermatu dezake, baina gure auzoan dauden zenbait adiskidetasun eta laguntasuna dendatxo eta kiosko hauetan sortutakoak dira.

Azken urte honetan bizilagun berriak etorri dira portalera eta nahiz eta tratua jatorra izan, oso arina da, ez dugulako izan harremanak estutzeko “plazarik”. Gizakia animali soziala da eta gure Eibar honetan tabernek hauek garatzeko esklusibidadea hartzen ari dira.

*Osasuna faltan botatzen da galtzen denean* esan ohi da, eta lokal hauek itxita ikusterakoan pilula sozialak falta zaizkidala pentsatzen dut. Urte asko barru, berriz ere Eibar argazki zaharrekin (gaur egungoak izango direnak) atontzen denean, espero dut herriaren irudi jatorra eta pertsonala islatzea, eta ez globalizazioak dakarren irudi berdintsua, munduko beste edozein tokitan aurkitu dezakezun denden kartel handiekin.



*jon legarda*

“Datu ugariagoak eta desberdinagoak edozein unetan izanda, emaitzak ere ezin hobeak izan daitezke”

# Industriaren digitalizazioa

**Asko entzuten da azken aldian digitalizazioaren aro berri baten gaudela.** Uste nuen 80ko hamarkadan izan genuela jada gure digitalizazioa kaseteak eta binilozko diskoak desagertzen hasi zirenean. Zer gertatzen ari da orain ba? Zer aldatu da?

Gure inguruan gertatzen dena neurtzeko edo ezagutzeko gaitasuna ez da aldatu. Fenomeno fisikoak edo kimikoak zenbaki edo datu digital bihurtzeko sentsore teknologiak urteak daramatza garatzen eta produktu komertzial ugari eskura ditugu. Testu, ahots eta irudien digitalizazioa ere ez da gaur egungo zientzia bakarrik, hamarkadak dira arlo hauek garatzen ari direla. Beste alde batetik, inteligentzia artifizialaren atzean dauden teknologiak ere ez dira oraingoak. Aspaldi ditugu sare neuronalak eta antzeko teknika matematiko-estatistikoak ikerlarien eta industriaren esku. Beraz, zerk bultzatu gaitu orain iraultza honetara?

Hiru izan daitezke arrazoi teknologiko garrantzitsuenak (teknologikoak ez diren bezte arrazoiak ere baditugu). Bat, datu tamaina haundiak Interneten kudeatzeko teknologiaren garapena (cloud computing eta Big Data deritzon tresnak); bi, datuak transmititzeko gaitasunaren hobekuntza; eta hiru, datuak lantzeko behar den konputazio teknologiaren beherapenak.

Guzti honek zer eskaintzen digu? Datu ugariagoak eta desberdinagoak edozein momentutan eta edozein lekutan edukita, inteligentzia artifizialen teknikek emaitza ezin hobeak eman diezaguketela. Honi esker, gai gara begi-bistan daukagun baina ulertzen ez dugun errealitatea ezagutzeko, hobetzeko eta zer gertatuko den aurreikusteko. Printzipio hau edozein industriari aplikatu diezaiokegu, bai prozesuak, bai produktuak edo zerbitzuak hobetuz edo berriak sortuz.

Adibide erraz batekin ikus dezakegu zer lortzen ari garen gu DeustoTech-en industria baten digitalizazioari esker. Kasu honetan, jokoaren inguruan dabilen enpresa batekin, baina ludopatia kasuak garatu ez daitezen nahi duen enpresa batekin. Guk, euren zerbitzua erabiltzen duten pertsonen artean jakin ahal dezakegu ez nork, baizik non, noiz eta zein baldintzapean gerta daitezkeen ludopatia ereduak. Honek, onura izugarria ekarri dezake bai enpresarentzat (industriaren irudia hobetuz) bai gizartearentzat ere (ludopatia kasuak murriztuz). Guzti hori posible da momentuan gertatzen diren datu kantitate haundien kudeaketari eta inteligentzia artifizialen teknikei esker, eta noski DeustoTech-en gauden ikerlari bikainei esker, ze demontre.

## Asteburu probetxugarria izan zuten Eibar Eskubaloiko taldeek

**Senior mailako taldeetatik hasita, 1. Maila Nazionalean jokatzen duen Somos Eibarrek garaipen ezin aproposagoa** eskuratu zuen berarekin borroka berean dabilen Barakaldoren kantxan. Atsedenaldira berdinketarekin erretiratu ziren talde biak eta bigarren zatian izan ziren markagailuaren gorabeherei Gisasolak azken minutuan sartutako golak jarri zien azken puntua. Bera izan zen, gainera, taldeko onena Azkonizagarekin batera. Lurraldeko 1. Mailan jokatzen duen Haritza bigarren taldeak, bestalde, 29na berdindu zuen Munttarpe liderraren kantxan, eta Cruzek eta Blancok estatistika bikainak lortu zituzten. Avia Eibar Eskubaloia emakumezkoen taldeak ez zuen zorte bera izan eta 25-23 galdu zuen Donostian; horrez gain, Malen Ajak min hartu zuen eta baja izango da aste batzuetarako.

Harrobiari gainbegirada eginez, kadete mailako mutilen Tekniker makularik gabeko ibilbidetik jarraitzen du, partidu guztietan erraztasunez nagusitzen (oraingoan 20-40 Hondarribian). Jubenil mailako talde biak ere garaile izan ziren azken jardunaldian Ipuruan jokatutako partiduetan: mutilena 31-26 nagusitu zitzaion Legazpiko Karibe Zaharrari (Eneko Rivero atezaina bikain egon zen) eta neskena larri ibili zen Leizaran Lanbroari 23-22 azken unean irabazteko, partidu guztian atzetik joan eta gero (Jone Fernandez nabarmendu zen).



*Leire eta Ane Treviño kadeteak euskal selekzioarekin izan dira.*

## Ipuruako gimnastak Murtziako Espainiako txapelketatik itzuli dira



*Txapelketan izandako gure herriko hamarkotea.*

**Senior mailako taldea 10. postuan sailkatu zen (erkidego bakoitzetik bi onenak izan ziren)** eta kadete oinarriko boskotea 31. postuan amaitu zuen, 101 taldeen artean. Batek zein besteak izan dituzte Murtzian erakutsitakoa baino egun hobeak, baina hala eta guztiz Ipurua zuzentzen duen talde teknikoa pozik dago egindako denboraldiarekin, "nahiz eta txapelketako ariketetan hainbat akats izan". Bestalde, epe laburrera beste hainbat erronkei aurre egin beharko diete Ipuruako gimnastek: senior eta junior taldeak Aragoira joango dira bihar, Uteboko Udal Saria jokatzeko. Kadete oinarri mailako taldeak, bere aldetik, bost arorekin jarraitzen du ariketa perfekzionatzen, Euskalgym-ean eta San Andres Torneoan euren onena emateko asmoarekin.

## Aitor Monterok 3. postuan amaitu du denboraldia

**Gure herriko motorzaleak oso pozik amaitu du zilindradaz aldatu duen denboraldia .** 600ccko Super Sport-etik 1.000cc-ko Super Bikera pasatu da, emaitza paregabeak eskuratuz: Albaceten eta Nafarroan irabazi egin zuen, hirugarren izan zen Albaceteko bigarrenean eta Motorland-en, eta laugarren Jerezen. Azken sailkapen orokorrean hirugarren postuan geratu da, bost herrialdetako pilotoen artean.





*Manu Agirrek ondo merezitako omenaldia jaso zuen ekitaldian.*

## 11 domina lortu zituen Kalamuak jiu-jitsuko IV. Espainiako Kopan

**Ipurua kiroldegiak hartutako Espainiako Koparen laugarren edizioan Kalamuako antolatzaileek** parte hartu zuten talde guztien errekonozimendua jaso zuten. Guztira 175 judoka izan ziren, euretako 75 emakumezkoak, eta jende asko izan zen torneoa jarraitzen. Borroka modalitatean, Julen Ramonek zilarrezko domina irabazi zuen eta Arrate Jorge, Ane Rojo, Iker Martinez eta Asier Eslavak brontzezkoa. Ne Waza modalitatean, bestalde, Jon Arteagak zilarra eraman zuen.

# 120 eibartar helmugaratu ziren Behobia-Donostia maratoi erdian






**Giro epela lagun, 121 eibartarrek hartu zuten parte domeka goizean jokatutako Behobia-Donostia** proba entzutetsuaren 54. edizioan. Guztira 30.775 lagunek izena eman bazuten ere, 26.000tik gora bildu ziren irteera puntuan eta, ohikoa denez, jende asko gerturatu zen 20 kilometroko ibilbidean parte-hartzaileak animatzera. Jaume Leiva (1:00:18) eta Aroa Merino (1:09:44) izan ziren lehenak maratoi erdia osatzen. Eibartarrei dagokionez, Kepa Varela (277. postuan) eta Aitziber Urkiola (1023. postuan) izan ziren onenak. Emakumezkoen parte-hartzea handitzen doa urterik urte eta oraingoan 29 izan dira Eibarkoak, helmugaratutakoen laurdena, atleta guztiak kontuak hartzen badugu kopuru bera. Bestalde, elbarritasun zerebrala duten pertsonen sailkapenean Imanol Elkoroberezibar izan zen irabazlea, Behobia-Donostia lasterketan parte hartzen duen 27. aldian. Eta Naia Saez eibartarrak bigarren postua eskuratu zuen emakumezkoen junior mailan Behobia Gazte lasterketan.

| | | |
|---|---|---|
| 277 | Kepa Varela | 1h15'32" |
| 472 | Eneko Laskurain | 1h17'50" |
| 887 | Aitor Bastida | 1h21'11" |
| 1024 | Aitziber Urkiola | 1h22'01" |
| 1622 | Javier Murcia | 1h24'48" |
| 1759 | Haritz Uria | 1h25'28" |
| 1762 | Aitor Oiarzabal | 1h25'29" |
| 1872 | Eduardo Uribe | 1h25'56" |
| 2134 | Eneko Azurmendi | 1h26'58" |
| 2276 | Liher Prieto | 1h27'30" |
| 2683 | Igor Gomez | 1h28'44" |
| 2853 | Fidel Gonzalez | 1h29'11" |
| 2956 | Hamza El Hassouni | 1h29'28" |
| 3085 | Idoia Izagirre | 1h29'46" |
| 3765 | Aitor Bolinaga | 1h31'37" |
| 3989 | Jon Illarramendi | 1h32'12" |
| 4024 | Iñigo Poves | 1h32'16" |
| 4143 | Ane Ziaran | 1h32'34" |
| 4411 | Fernando Molpeceres | 1h33'11" |
| 4526 | Enrique Salgado | 1h33'28" |
| 4611 | Gorka Gallastegi | 1h33'42" |
| 4639 | Ion Zubiate | 1h33'45" |
| 5078 | Jon Astigarraga | 1h34'46" |
| 5251 | Carlos Fernandez | 1h35'09" |
| 5531 | Jokin Alonso | 1h35'45" |
| 6479 | Ibon Arizaga | 1h37'39" |
| 6534 | Unai Fernandez | 1h37'45" |
| 6542 | Unai Etxaburu | 1h37'46" |
| 6609 | Ibon Vega | 1h37'51" |
| 6744 | Ander Telleria | 1h38'04" |
| 6882 | Xabier Perez | 1h38'18" |
| 7106 | Bittor Ugarteburu | 1h38'42" |
| 7197 | Eneko Urain | 1h38'50" |
| 7803 | Izaskun Aizpiri | 1h39'47" |
| 7818 | Juanjo Romero | 1h39'49" |
| 8327 | Ibon Martin | 1h40'42" |
| 8404 | Ander Ballona | 1h40'52" |
| 8458 | Mikel Lazpita | 1h40'58" |
| 9080 | Jorge Ibañez | 1h42'06" |
| 9178 | David Riaño | 1h42'16" |
| 9219 | Txomin Aizpurua | 1h42'20" |
| 9262 | Edorta Marquez | 1h42'24" |
| 9625 | Maialen Zubizarreta | 1h43'01" |
| 9640 | Marina Kruzelaegi | 1h43'02" |
| 9713 | Felipe Sanchez | 1h43'10" |
| 9800 | Jesus Francisco Pagei | 1h43'19" |
| 9819 | Jaime Mendiguren | 1h43'21" |
| 9833 | Ander De Diego | 1h43'22" |
| 9891 | Harkaitz Zabala | 1h43'29" |
| 10044 | Kristina Lopez | 1h43'43" |
| 10049 | Ivan Agote | 1h43'44" |
| 10057 | Paul Unamuno | 1h43'45" |
| 10061 | Eneko Escudero | 1h43'45" |
| 10182 | Juan Miguel Gonzalez | 1h43'56" |
| 10686 | Gorka Soraluze | 1h44'48" |
| 11115 | Jon Mardaras | 1h45'30" |
| 11374 | Alexander Telleria | 1h45'56" |
| 11406 | Amaia Abanzabalegi | 1h45'58" |
| 11414 | Oscar Saez | 1h45'59" |
| 12062 | Eduardo Kapelastegi | 1h47'09" |
| 12514 | Alberto Saenz de Viteri | 1h47'58" |
| 13224 | Jose Javier Egurrola | 1h49'11" |
| 13337 | Ane Marfull | 1h49'24" |
| 13448 | David Suarez | 1h49'34" |
| 14220 | Roberto Gallego | 1h50'56" |
| 14382 | Paula Pereira | 1h51'14" |
| 14408 | Luis Largo | 1h51'17" |
| 14445 | Ernesto Etxabe | 1h51'21" |
| 15173 | Susana Agirregomezkorta | 1h52'42" |
| 15179 | Susana Etxeberria | 1h52'43" |
| 15731 | Raul Miguel | 1h53'40" |
| 15809 | Enrique Agirrebeña | 1h53'48" |
| 15814 | Jon Otxoa | 1h53'48" |
| 15828 | Iñaki Ulazia | 1h53'49" |
| 16016 | Nerea Unamuno | 1h54'12" |
| 16186 | Cristina Garcia | 1h54'29" |
| 16485 | Nerea Ziaran | 1h55'03" |
| 16549 | Ainhoa Larrauri | 1h55'09" |
| 16731 | Iker Apilanez | 1h55'34" |
| 17329 | Carlos Balseiro | 1h56'45" |
| 17385 | Igor Mendoza | 1h56'50" |
| 17532 | Iker Lasuen | 1h57'07" |
| 17657 | Elisabet Unamuno | 1h57'24" |
| 17756 | Juan Etxeberria | 1h57'35" |
| 18710 | Eneko Eizagirre | 1h59'33" |
| 18851 | Luis De Blas | 1h59'53" |
| 19081 | Imanol Elkoroberezibar | 2h00'24" |
| 19356 | Jon Mikel Lejardi | 2h01'02" |
| 19737 | Jon Mora | 2h01'58" |
| 19746 | Josu Trueba | 2h01'59" |
| 19817 | Asier Silva | 2h02'11" |
| 19867 | Jokin Alberdi | 2h02'18" |
| 19872 | Lore Azpiri | 2h02'19" |
| 19873 | Aitor Aizpuru | 2h02'19" |
| 20373 | Ander Egurrola | 2h03'42" |
| 20387 | Iraide Paredes | 2h03'44" |
| 20912 | Aitor Aranzeta | 2h05'17" |
| 20915 | Olatz Aranzeta | 2h05'17" |
| 20991 | Leire Bergara | 2h05'30" |
| 21003 | Aitor Muguruza | 2h05'31" |
| 21012 | Idoia Muguruza | 2h05'33" |
| 21019 | Adrian Galan | 2h05'35" |
| 21097 | Maider Otaola | 2h05'48" |
| 21099 | Ainhoa Ugarte | 2h05'48" |
| 21787 | Carmen Artamendi | 2h08'21" |
| 21789 | Miriam Sanchez | 2h08'22" |
| 21848 | Xabier Arrieta | 2h08'37" |
| 22009 | Mikel Miguelena | 2h09'18" |
| 22089 | Alicia Martinez | 2h09'39" |
| 22251 | Gorka Fernandez | 2h10'27" |
| 22269 | Mª Dolores Vilanova | 2h10'31" |
| 22277 | Manuel Lopez | 2h10'33" |
| 22489 | Irene Perez | 2h11'35" |
| 23032 | Beñat Santamaria | 2h14'54" |
| 23036 | Ainhoa Apellaniz | 2h14'54" |
| 23369 | Yago Del Campo | 2h16'56" |
| 24440 | Iker Mujika | 2h34'24" |
| 24490 | Adrian Del Nozal | 2h35'42" |
| 24524 | Haritz Egia | 2h38'16" |
| 24530 | Eduardo Alvarez | 2h38'20" |



*Mendizale taldetxoa San Adrianen.*

# 34 mendizalek egin zuten Gaztaren Ibilbidearen 5. etapa

**Arantzazu eta Etzegarate lotu zituen etaparako 34 mendizale abiatu ziren** eguraldi estaliarekin, *"iragarpenek euri apurra ematen zutela"*. Bidean gora ehizan zihardutela esaten zieten kartelak adi jarri zituzten eta Urbiara iristean "lanbroari ekin zion, Aizkorriko mendikatea lainopean guztiz". Hortik aurrera, batzuk Urbia-Oltza-San Adrian aldera jo zuten, "leku batzuetan gerrirainoko orbeletan murgiltzeko", pista zabala ekidin eta bidexketatik jota. San Adriango tunel labana igarota, Otzaurtera iritsi ziren, auzoa San Martin jaietan murgilduta zegoela. Eta Etzegarate mendatera helduta, bertako ostatuan su goxoa eta janaria zuten zain, txangoa "behar den moduan" amaitzeko. Hilaren 24an egingo dute Gaztaren Ibilbidearen azken etapa, Otzaurten hasi eta Lizarrustin, lehenengo etapako ibilbidea hasi zuten tokian, amaitzeko. Parte hartu nahi dutenek Deporren eman dezakete izena.

# Jon Arana xakelaria liderra da Elgoibarren



**Jokatutako lau partidak irabazi eta gero, Eibarko Klub Deportiboko xakelaria torneo horretako lehen postuan dago.** Bi astean behin jokatzen den txapelketa horretan nazioarteko federazioaren zerrendan 2.200 puntutik behera duten jokalariek dihardute jokatzen (28 parte-hartzaile guztira) eta, Aranarekin batera, Jon Esturo eta Jose Antonio Garrido Deportiboko taldekideak dihardute Elgoibarren. Lau partidaren ondoren, Jon Aranak lau puntu ditu, Esturok bi eta erdi eta Garridok bi.

Gipuzkoako bakarkako txapelketak ere jokoan dira. Maila nagusian ari dira Jon Arana (2 puntu) eta Xabier Beorlegi (1,5 puntu). Bigarren mailan Jose Antonio Garrido (2 puntu) eta Adrian Martinikorena (1,5 puntu) ari dira, eta hirugarrenean Igor Zenigaonaindia (3 puntu), Aitor Beorlegi (2 puntu) eta Oier Garcia (1,5 puntu). Larunbatean jokatuko da 5. txanda Donostian.

# Elgoibarko San Miguelen erabakiko da Euskal Herriko hiru-txirlo txapelketa


*Lander Odiagak irabazi zuen Barinagan.*

**Bihar arratsaldean jokatuko da Euskal Herriko 29. hiru-txirlo bola joko txapelketarako azken jardunaldia.** 16:15ean probarako jaurtialdia hasiko dute bi bolekin eta txapelketa ofizialari 17:00etan ekingo zaio. Barinagan jokatutako azken jardunaldian Lander Odiaga markinarra (MX3T) izan zen irabazle, zazpi txirlorekin, eta atzetik izan zituen, seirekin, beste bost tiralari, tartean Juan Luis Rodriguez eibartarra. Azken hori da Asola Berriko ordezkari onena, sailkapen orokorreko hirugarren postuan, eta San Migueleko Angel Ibarluzea liderrarengandik hiru txirlora. Bien artean dago Odiaga Barinagako irabazlea, Ibarluzeak baino txirlo bat gutxiagorekin. Azken jardunaldi horren faltan, bikoteka Asola Berriko Felix eta Beñat Gomez hirugarrenak dira, nagusien sailkapena Juan Luis Rodriguezek lideratzen du eta alebinetan Kepa Rodriguez da nagusi.

# Avia Eibar Rugbyk ondo menperatu zuen Vigo


*Iazko Vigoren aurkako partiduak kolore berezia izan zuen.*

**Ohorezko B mailako zortzigarren jardunaldian Avia Eibar Rugby Taldeak Universidad de Vigori 46-26** irabazi zion domekan Unbeko zelaian jokatutako partiduan. Eibartarren aurkari zuzena da Vigokoa sailkapenean eta indartsu ekin zion partiduari Avia Eibarrek eta, Gaizka Arrizabalaga, Gaston Ibarburu, Jokin Garcia, Santi Carrara eta Ander Gallegoren entseguei esker, atsedenaldira 34-12ko emaitzarekin erretiratu ziren. Bigarren zatian galiziarrek fede handiagorekin zelairatu ziren, baina eibartarrek neurketa erabaki zuten Ruben Carracedo eta Jokin Garciaren beste bi entseguei esker. Bost puntu garrantzitsu izan dira Eibarko taldeak irabazitakoak.

Emakumezkoen taldeko jokalariak Kote Olaizola torneoan izan ziren Hernanin, lagunarte mailan "eta kirola ikustarazteko" asmoarekin. Eta 18 urtetik beherako mutilen taldeak Donostian Rugby Club Rioja izan zuen aurkari *"ezin gogorragoa"*.

## ASTEBURUKO AGENDA

**FOBALLA**
**2. B Maila**
Vitoria - Sporting B (etzi, 17:00)
**Ohorezko Erregional Maila**
Eibar - Zarautz (bihar, 17:45)
**1. Erregionala**
Zarautz - Urki (etzi, 15:45)
JUBENILAK
**Ohorezko Maila Nazionala**
Osasuna - Eibar (etzi, 12:00)
**Euskal Liga**
Olarizu - Eibar (bihar, 11:30)
KADETEAK
**Euskal Liga**
Eibar - Alaves (bihar, 15:30)

**FOBALL-ZALETUA**
Bar Areto - Adahi Azkena (bihar, 09:00)
Larragest - Durango (bihar, 10:30)
Ipur - Feredu Solutions (bihar, 12:00)
JMR Erreformak - Bar Txoko (etzi, 09:00)
Los Paisanos - La Jara Hiru (etzi, 10:30)
Slow XOK - Garajes Garcia (etzi, 12:00)

**ESKUBALOIA**
**1. Nazional Maila**
Somos Eibar - Casablanca (bihar, 19:00)
**Emakumeen Gipuzkoako Txapelketa**
Eibar Eskubaloia - Oskarbi (etzi, 11:45)
**Gipuzkoako 1. Maila**
Haritza - Egia Kosko (bihar, 16:45)

**SASKIBALOIA**
**Gipuzkoako 3. Maila**
Avia Saskibaloia - Mon. Uni. (bihar, 18:15)

**WATERPOLOA**
**Euskal Herriko 1. Maila**
WP 9802 Urbat IKE (bihar, 15:30)
**Emakumeen Euskal Herriko 1. Maila**
Lautada - Urbat IKE (etzi, 10:00)

**AGENDA OSOA GURE WEB ORRIAN**

# Asteburu betea dute Eibar Igerixan taldeko igerilariek

**Denboraldia aurrera doala, igerilekuan gero eta barneratuago ditugu Eibar Igerixan-ekoak.** Eta asteburu hau topera dute. Hasteko, Club de Nataciò Barcelonako kiroldegian Espainiako Neguko Txapelketa Absolutua jokatzen dabiltza atzotik eta han hartzen dute parte Jon Osak eta Maite Barruetabeñak. Ondo ibiliko dira 25 metroko eta 10 kaleko igerilekuan, maila ematen. Bestalde, benjamin mailako igerilariak Azpeitian izango dira bihar ligako lehenengoko jardunaldian. Alebin mailakoek Legazpiko Bikuña kiroldegian dute hitzordua, hauek ere bihar, eta euren ligako bigarren jardunaldiaren barruan.




**MALEN JAINAGA:** "Mendiko urak".

Musika tresnaren batekin lotzen duen testigantza historikorik ez badago ere, Zezilia Erromakoa 1594 urtean izendatu zuten musikaren zaindari eta azaroaren 22a da bere eguna, Santa Zezilia. Ohiturari jarraituz, musikariek egun honetan ospatzen dute euren eguna, baita eibartarrek ere. Usartza Txistulari Taldeak, adibidez, 22an 19:30ean kalejira egiteaz gain, kontzertu berezia eskainiko du 18an 12:30etan Coliseoan.



# Txistua ganberan

Herri musikarekin lotu ohi da txistua, baina Euskal Herriko musika tresna tradizional honek soinu finenak igorri ditzake. Usartza Txistulari Taldekoek sarritan erakutsi dituzte txistuak eskaini ditzakeen aukerak eta domekan beste erakustaldi bat egingo dute. Pianoa, soinua, perkusioa, eta harizko eta metalezko instrumentuak txistuarekin uztartuko dituzte ganbera kontzertua eskaintzeko.

Ohiko errepertorioa guztiz aldatu eta pieza berriak prestatzen dabiltza Usartzakoak azken asteotan. Entsegu batean egon gara eta azken zertzeladak prestatzen ikusi ditugu. Taldeko kideak pozik daude kontzertu bereziaren aurrean eta urteetako esperientziak ematen dien lasaitasuna nabari zaie.

Ordubete inguru iraungo du domekako ikuskizunak eta mota askotako lanak entzun ahal izango dira. *"Kontu handiz prestatu dugu egitaraua eta ikusleak harritu egingo direla uste dugu"*, esan digu Elena Pérez zuzendariak. *"Oso bestelako gauza entzungo dute"*.




## Publikoa harritzeko egitaraua

Kontzertu berezia izanik, Usartzakoek modu berezian hasi nahi dute domekako ikuskizuna. Malcom Arnolden 'Kwai ibai gaineko zubia' pieza aukeratu dute saioa hasteko. Giroa animatu eta publikoa berotzeko pieza. Jose María Gonzalez Bastidaren 'Belkoain' joko dute gero. "Oso pieza interesgarria da", Perezen berbetan. "Gonzalez Bastidak ondo ezagutzen zuen txistua eta horren erakusle da pieza hau. Banda tradizionalerako idatzita dago". Ondoren, Kepa Junkeraren 'Muskerraren Baltsa' (Xabier Zabalak moldatuta), Pello Ramírezen 'Itsasora mezu bat', Xabier Zabalaren 'Oskirako bidea', Luis Aranbururen 'Kontzertu Rem', Aitor Furundarenaren 'Elorri orri', Jabier Ituarteren 'Aire zahar bat', Ruper Lekueren 'Habanera' eta Carlos Sanchez Ekizaren 'Txapela buruan' piezak joko dituzte.

Esan bezala, Usartza Txistulari Taldekoek laguntza berezia jasoko dute Coliseoko oholtzan. Elena Pérez eta Enrique Montero izango dira 1. txistuak, Ainhoa Urkizu eta Iratxe Gimenez 2. txistuak, Asier Castelos eta Javier Zorrakin silboteak, eta Iñaki Orbegozo eta German Ereña atabalak, eta kontzertuan zehar eurekin joko dute Mari Sol Arrillaga pianojoleak, Jokin Vitoria perkusionistak, 'Harituz' hari laukoteak eta 'Molto vivace' metal boskoteak.

## '...eta kitto!'-ri omenaldia

'...eta kitto!' Euskara Elkarteak 25 urte bete ditu eta Usartza Txistulari Taldeak omenaldia eskaini nahi dio domekako kontzertuan. Eibarren euskeraren alde egindako lana goraipatu nahi dute musikariek eta abesti bat eskainiko diote euskara elkarteari.

Domekakoaz gain, Usartzakoek beste kontzertu berezi bat eskainiko dute laster. Izan ere, abenduaren 23an Gabonetako kontzertua joko dute udaletxeko arkupean 12:30ean Sostoa Abesbatzarekin, Isabel Laspiur piano-jolearekin eta haizezko instrumentuekin batera.

Belarriprestek eta Ahobiziek "Euskaraldia. 11 egun euskaraz" ekimenari ekingo diote datorren astean Eukal Herriko bazter guztietan, hizkuntza ohiturak aldatu eta euskararen erabilera bultzatzeko asmoz. Eibarren, gainera, hirugarren rola sortu da, Bihotzgoxoarena. Zeintzuk izan daitezke Bihotzgoxo? Zergatik da hain garrantzitsua Bihotzgoxo? Bere papera zein den hobeto jakiteko Juan Jose Flores, Eibarko Galiziako Etxeko presidentearekin egon gara. Bihotzgoxo izango da Euskaraldian eta bere ikuspegia azaldu digu.



Casa Galiziako presidentea "Bihotzgoxo" da.

### JUAN JOSE FLORES, EUSKARALDIAREN HAMAIKAKOAREN ENBAXADOREA

# "Euskaraldia euskera erabiltzen animatzeko modua da, oso gutxi jakin arren"

*- Euskaraldiaren enbaxadore moduan jardun duzu azken hilabeteetan. Zein izan da zure egin beharrekoa?*

Euskaraldian kolaboratzeko deitu zidatenean nik euskera oso gutxi ulertzen eta hitz egiten nuela esan nien Akebaikoei. Euren erantzuna izan zen nire moduko jendea ere oso beharrezkoa zela. Kultur Etxe bateko ordezkaria naizenez, aproposa ikusi ninduten Euskaraldiaren ekimenean laguntzeko, eta bereziki nire inguruan Euskaraldiaren inguruko informazioa zabaltzeko. Eibarren Bihotzgoxo rola sortzeko asmoa zegoela azaldu zidaten. Niretzat plazer bat da enbaxadore jardutea. Jendea dakiena (bakoitza bere mailan) erabiltzen animatzeko modu bat da Euskaraldia: bakarrik "egun on" esaten dakizula, ba aurrera! Jarrera kontua da.

*- Eibarko Galiziako Etxeko presidente moduan, beraz, argi ikusten duzu euskerarekiko zure jarrera zein den.*

Jakingo duzunez, Galiziako Etxearen helburuak gure erroei eustea eta Galiziako kulturaren eta euskal kulturaren arteko lotura indartzea da. Beraz, oso ondo ikusten dut euskeraz hitz egitea eta euskeraren erabilera handiagotzeko egiten dena. Prest nago ahal dudan guztian laguntzeko, nahiz eta apenas ez dudan ulertzen eta hitz egiten. Bestalde, orain dela gutxi aurrejubilatu naiz, baina esan beharra daukat nire enpresan euskera plana izan dugula eta gustora parte hartu dudala beti euskera bultzatzeko ekimen guztietan.

*- Bihotzgoxoaren papera oso garrantzitsua da. Azken finean, Bihotzgoxok pozik hartuko du bere ingurukoak euskaraz egitea, berak ulertu ez arren.*

Euskeraz ez dakiten batzuk txarto edo deseroso sentitzen dira euskeraz hitz egiten zaienean, eta hori ez da horrela izan behar, nire ustez. Batzutan, agian, euskeraz erantzun ahal diozu. Eta ezin baduzu elkarrizketa jarraitu, ez da ezer kostatzen "mesedez, erderaz" esatea.

# IZENA EMATEKO euskaraldia.eus/akebai.eus

**AHOBIZI** **orain arte 1.425 Eibarren**

11 egunetan, lehen hitza beti euskaraz egingo duzu, eta euskara ulertzen duten guztiekin euskara hutsean arituko zara.

**BELARRIPREST** **orain arte 496 Eibarren**

11 egunetan, dakiten guztiei zuri euskaraz egiteko eskatuko diezu, zuk euskaraz zein gaztelaniaz erantzun arren.

**BIHOTZGOXO** **orain arte 208 Eibarren**

Durante 11 días, animarás a ahobizi y a belarriprest a que hablen en euskera entre ellos/ellas, aunque tú no lo entiendas. Cuando se dirijan a ti, lo harán en castellano.

# TXAPAK jasotzeko

EUSKARA ZERBITZUA
(Portalea, 2. solairua)

...ETA KITTO!
(Urkizu pasealekua, 11)

UDAL EUSKALTEGIA
(Portalea, 2. solairua)

AEK EUSKALTEGIA
(Sostoatarren kalea, 1)






*Urkizu Eskolakoak.*

TALDEEN
ARGAZKI
GEHIAGO

akebai.eus

# EUSKARALDIAREKIN BAT

*Urkizu aldekoak.*









# EUSKARAREN EGUNA
## gero eta gertuago

*"Hau hasiera besterik ez da"* goiburua izango du abenduaren 3an ospatuko dugun euskararen egunak. Egun horretan amaituko da Euskal Herri osoan 11 egunean egingo den Euskaraldia, eta une horretatik aurrera hasiko da benetako erronka; hortik aurtengo Euskararen Egunerako Eibarko Euskalgintzak aukeratutako goiburu esanguratsua. Egun horretan, astelehenean, horma-irudia egingo da 19:00etatik aurrera, Untzagan. Jendeak pegatinak jarriko ditu murala osatzeko, pegatina koloreatuak eta 3 rolen irudiekin. Horrez gain, Euskaraldian parte hartu dutenen esperientziak entzungo dira. Kaja batean sartu eta ozen irakurriko dira.

Egun bat lehenago, abenduaren 2an (domeka) herri-bazkaria egingo da, 14:30ean, Untzagan jarriko den karpan. Bazkaria Bizimiña Elkarteak prestatuko du: paella, postrea eta kafea. Ondoren, erromeria izango da Iratzar taldearekin. Bazkarirako txartelak dagoeneko salgai daude ...eta kitto!-n eta Xania, Tarte, Kultu eta Guridi tabernetan 10 euroren truke (7 euro ume, langabetu eta jubilatuentzako).

## BERTHA GAZTELUMENDI (dokumentalista):

# “Gizarte baketsuan bizitzeko biolentzia askori egin behar zaie aurre”



Azaroaren 25ean Indarkeria matxisten Aurkako Nazioarteko Eguna ospatuko da eta Andretxeak hainbat ekintza antolatu ditu horren inguruan hilabete guztian. Hilaren 21ean, adibidez, Bertha Gaztelumendiren ‘Mariposas en el hierro’ dokumentala ikusteko aukera egongo da 18:00etan Portalean. Indarkeria mota ezberdinen biktima izan diren emakumeen testigantzak jasotzen ditu dokumentalak.

*- Hainbat motatako biolentziaren biktima izan diren emakumeen testigantzak jaso dituzu ‘Mariposas en el hierro’ dokumentalean. Jasan duten mina, hala ere, bera da?*

Zaila da pertsona bakoitzak nolako mina duen neurtzea, baina biktimek besteen mina ulertzen dute eta bestearen azalean jartzeko gaitasun handiagoa daukate. Besteenganako enpatia ekarri die sufrimenduak.

*- Nolako testigantzak jasotzen ditu dokumentalak?*

Motibazio politikoko indarkeriaren inguruko testigantzak dira nagusi, baina badaude gehiago. Dokumentala 2012an estreinatu genuen, eta ETAk armak utzi eta hilabete gutxira hasi ginen lanean. Beraz, orduko testuingurua kontuan hartzekoa da. Euskal gatazkaren inguruko testigantzak jasotzeaz gain, esan nahi genuen gizarte baketsu batean bizitzeko ez dela indarkeria mota bakar bat gainditu behar, inguruan biolentzia gehiago daukagulako, eta biolentzia horiek islatu nahi genituen dokumentalean. Bestetik, batzuk islatu ditugu eta beste batzuk ez, baina horrek ez du esan nahi beste mota bateko indarkeriarik ez dagoenik. Biolentzia politikoa, genero indarkeria, xenofobia, etxegabetze-agindua daukatenek jasaten duten indarkeria eta aberastasunaren ezberdintasunak sortzen duen biolentzia ekonomikoa jasotzen dugu dokumentalean, besteak beste.

*- 2012an egin zenuen dokumentala. Ordutik bakerako bidean pausoak eman direla esango zenuke?*

Aurrera egiten ari garela uste dut. Hainbat gauzatan bakearen bidean jarri gara. Dokumental honetan jatorri ezberdineko biktimek (ETA, GAL, segurtasun indarrak, genero biolentzia...) elkarrekin lan egiteko gai izan ziren eta nazioarteko zuzenbideak esaten duena azpimarratuko nuke; hau da, urraketa berdinari erreparazio eta justizia berdina eman behar zaiola, edozein dela egilea.

*- Dokumentalak galderak sortzen ditu eta Portaleako saioan ikusleekin solasaldia egiteko aukera izango duzu. Garrantzitsua da gai hauen inguruan berba egitea?*

Bai, noski. Batetik, solasaldia eta komunikazioa funtsezkoa delako edozein proiektu aurrera ateratzeko, edozein oztopo gainditzeko eta edozein arazorik irtenbidea emateko. Horrelako foroetan ahots ezberdinak biltzen dira, eta oso garrantzitsuak eta interesgarriak izaten dira solasaldi hauek.

*- Zer jasoko du eguaztenean dokumentala ikustera doanak?*

Dokumentalean agertzen diren emakumeek, nahiz eta sufrimendu itzela jasan eta biolentzia horrek bizia markatu, egoerari buelta emateko eta bake bidea egiteko gauza izan direla ikustea. Gizarte baketsuan bizitzeko biolentzia askori egin behar zaie aurre.




## '#txiotesia4 Twitterreko lehiaketa egingo da martitzenean

**Urte birik behin antolatzen den "Txiokatu zure tesia 6 mezutan" (#txiotesia)** euskal ikertzaile gazteei zuzendutako Twitterreko lehiaketa da eta martitzenean egingo da laugarrenez. UEUk sustatzen duen Unibertsitatea.net atariak antolatzen duen lehiaketan tesia sei txiotan eta euskaraz laburtu behar da eta sari bi banatuko dituzte: "Txiolari ulergarriena" (500 euro) eta "Txiolari originalena" (300 euro). Antolatzaileen berbetan, *“euskal ikertzaileei izen-abizenak jartzea eta hauek egiten dituzten lanak gizarteratzea”* da helburu nagusia. 160 ikertzailetik gora animatu dira erronkara orain arte antolatu diren hiru edizioetan. Lehiaketako arauak eta bestelako informazioa unibertsitatea.net atarian, “txiotesia” atalean kontsultatu daiteke. Parte hartzekoa bazara, ez galdu 2016ko "Txiolari originalena" izan zen Iraia Muñoa aldizkari honetako kolaboratzailearen aholkua: *"Ikerketa lanen oinarri sinpleenak azaltzen ahalegindu daitezela, hitz tekniko eta potoloak alde batera utziz".*




## "Musua" aurkeztuko dute bihar-etzi Pirritx, Porrotx eta Marimototsek

**Asteburu honetan ekarriko digute "Musua" izenburuko ikuskizun berria** Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik Hezkuntza Esparruko aretoak hartuko dituen lau emankizunetan: bihar 16:30ean eta 19:00etan izango dira funtzioak eta domekan, berriz, 16:00etan eta 18:30ean. Azken sarrerak lehiatilan ipiniko dituzte salgai, ikuskizuna hasi aurretik, 8 eurotan.


Silbia Hernandez

## Euripean, baina giro ederrean, ospatu zuten Gaztañerre AEK-koek

**Urteroko ohiturari jarraituta, astelehen iluntzean Gaztaiñerre ospatzeko kalejira egin zuten** AEK euskaltegikoek eta eurekin bat egitera animatu ziren guztiek. Euskaltegi parean dagoen Paloma tabernan elkartu eta, afari-merienda ederra egin eta gero, soinu eta panderoarekin girotutako kalejirari ekin zioten. Aurretik, baina, Euskaraldirako talde argazkia egiteko aprobetxatu zuten eta, une horretan euria bota ahala egon arren, nola edo hala moldatu ziren. Oztopoak oztopo, betiko moduan primerako giroan eta kantu artean ospatu zuten jaia.

## San Andres bertso-jaialdirako sarrerak salgai daude

**Azaroaren 25ean egingo da ...eta kitto! Euskara Elkarteak San Andres jaien bueltan** urtero antolatzen duen bertso-jaialdia, 18:30etik aurrera Portaleko areto nagusian. Jon Mikel Mujika gai-jartzailearen esanetara jardungo dute Andoni Egaña, Alaia Martin, Maialen Lujanbio eta Unai Mendizabal bertsolariek. Aurretik, baina, aurtengo San Andres bertso-paper lehiaketako sariak banatuko dira eta irabazleek euren bertsoak kantatuko dituzte. Sarrerak Sagar Bitza, Kultu eta Guridi tabernetan daude salgai, 6 eurotan eta, horrez gain, egunean bertan ere erosteko aukera izango da, Portalean.






## Poesia hitzaldi-errezitaldia

Datorren barixakuan (azaroak 23) "La poesía en su expresión de rebeldía y conciencia personal y social" hitzaldi-errezitaldia hartuko du Portaleak, 19:00etatik aurrera. Bartzelonako langileen ateneo batean 1995ean sortu zen León Felipe Taldeko kide diren Adolfo Castaños eta Maria Angeles Igartua arduratuko dira poesia errezitaldiarekin, Xeberri kantautorearen musikak lagunduta. Aurreratu dutenez, errezitaldiaren ardatza berrogeita hamarreko belaunaldia izango da eta aukeratutako poetak, berriz, Goytisolo, Gil de Biedman, Gloria Fuertes eta Jose Hierro, gure taldearentzat erreferentzia den Leon Felipe poetarekin batera. Saio honekin poesiaren ezagutzari eta zabalkundeari laguntzea espero dugu".

## Ikasleen Santa Zezilia kalejira

Eguazten arratsaldean ospatuko dute Santa Zezilia, musikarien babeslearen eguna Juan Bautista Gisasola Musika Eskolakoek eta, horretarako, 17:00etan kalejiran irtengo dira, Portaletik abiatuta.



## Internet eta haurren segurtasuna

Hirukidek, BCSC Zibersegurtasun Euskal Zentroarekin elkarlanean, guraso eta irakasleentzat bereziki interesgarria den gaiaren inguruko hitzaldia, "¿Cómo acompañar a nuestros hijos e hijas para un disfrute sin riesgos ni abuso de Internet?" izenburukoa antolatu du azaroaren 27rako (martitzena), 19:00etan Portaleko areto nagusian. Jorge Flores, adin-txikikoen segurtasuna zaintzen duen "Pantallas Amigas" ekimeneko sortzaile eta zuzendariak jardungo du berbetan eta sarrera librea izango da.

# "Ahotsak" ekimenak jasoko du 2018ko Abbadia saria

**Garbiñe Mendizabal Hizkuntza Berdintasuneko zuzendariak astelehen goizean egindako agerraldian** ezagutzera eman zuenez, aurtengo Abbadia saria 'Ahotsak' ekimenak jasoko du. Gipuzkoako Foru Aldundiak euskararen alde egindako lana eskertzeko ematen duen saria aho batez Ahotsak ekimenari ematea proposatu du epaimahaiak. Ohitura denez, Euskararen Nazioarteko Egunaren atarian jasoko du Ahotsak.eus-ek Abbadia saria, azaroaren 30ean, 19:00etan foru jauregian hasiko den ekitaldian. Euskal Herriko ahozko ondarea jasotzeko sortu zen Ahotsak, 2000. urtean, Badihardugu Euskara Elkartearen eskutik. 2002-2003 urteetan jarri ziren proiektuaren oinarriak, hurrengo hiru urteetan bilketa lana eta jasotako materialaren lanketa hasi zen, eta 2008az geroztik interneten daude Euskal Herri osoko 350 herritan 5.793 hizlarirengandik jasotako 51.082 bideo-pasarte, denetariko gaiei buruzkoak. Epaimahaiak nabarmendu ditu Ahotsak.eus-ek egindako lana eta ekarpena, "euskararen lurralde guztietako eta euskalki guztietako ahozko testigantzak sarean etengabe jaso eta eskumen librean jartzeagatik".


*Ignazio Zuloaga Institutuko eusLiderrak.*

## Banatu dituzte 19. Asier Errasti film laburren lehiaketako sariak

**Zapatu iluntzean, Coliseo antzokiak hartu zuen ekitaldian, banatu zituzten Eibarko Udalak eta Plano Corto elkarteak antolatutako** 19. Asier Errasti Film Laburren Lehiaketako Javier Agirresarobe Sariak. Gaztelerazko fikzioan, epaimahaikideek Pau Teixidorren "Cunetas", Gerra Zibilean girotutako lanari eman zioten sari nagusia. Bigarren saria, berriz, Jose Corral Llorenteren "Un cuento familiar" izenburukoak eraman zuen. Euskerazko lanen artean, berriz, Xanti Rodriguez argazkilari azpeitiarraren lehen laburmetraiak, "Lekaime" izenburukoak jaso zuen saria. Animazioan, aurkeztutako 13 lanen artean, Arnau Gòdia Montesinosen "Psicolapse" saritu zuten. Eta eibartar onenaren saria Juanma Canok zuzendutako lehen film laburrak, "No escupas hacia arriba" izenburukoak eraman zuen. Plano Corto elkartekoek jaialdia egiten lagundu duten guztiei euren esker ona azaldu nahi diete, bereziki ekitaldia aurkeztu zuen Lorea Arakistaini, *"jaialdia urtero gidatzen laguntzeagatik eta mila esker, baita ere, Nerea Ariznabarretari, bere mundu umoretsuarekin jaialdia girotzeagatik"*.



**Malen Illarramendi**



# Datorren eguenean egingo da Eibarko Beldur Barik jaialdia

**Beldur Barik lehiaketara aurkeztutako Eibarko bideoen emanaldia, sari-banaketa eta ikuskizuna egingo dira eguenean,** 18:00etan Portalean hasiko den ekitaldian. Jarduera doakoa eta irekia izango da. Eibartarrek bost bideo aurkeztu dituzte aurtengo ediziora. Lehen kategorian (12/17 urte) bi lan izango dira lehian: "Txikitatik" (Lucía Mei, Alex, Malen, Ainhara, Unai, Maialen eta Alaitz) eta "Gaur" (Naia Saez, Elene Varela, Eider Clavel eta Malen Txurruka). Eta bigarren kategorian (18/26 urte) hiru hauek lehiatuko dira: "FruteriXia" (Jone Bengoa Urizar, Uxue Igarza Loyola eta Marta Marina Larrañaga), "Ez izan fideltasun itsua gizarte matxistari" (Sukaina eta Doha) eta "Emakumea tailerrera heltzean… Beldur Barik" (Asier Hortelano, Ekain Larrainaga, Iñaki Burgaña, Eneko Diaz, Joseba Gallastegui, Julen Lejarazu, Dani Patiño, Aitor Umerez eta Aitzol Uribelarrea). Eibartarren lanak, beste herrietatik lehiaketara aurkeztutakoekin batera, beldurbarik.org/eu/2018-lanak helbidean ikus daitezke.






## Bertso jaialdia ERMUAN

San Martin Kulturalaren barruan, bertso jaialdia antolatu dute Euskal Birusa elkartekoek gaur gauerako, 22:15erako, Ermua antzokian. Maddalen Arzallus, Uxue Alberdi, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio eta Igor Elortza bertsolariak arituko dira eta gai-jartzailea Maite Berriozabal izango da. Sarrerak eskuragarri daude, 10 eurotan, Lobiano Kulturgunean, BBKko kutxazainetan eta 944 310 310 telefonoan.



## Lorcaren gutunak taula gainean BERRIZEN

Berrizko Kultur Etxeak eta Histrion Teatro Granadak antolatuta, bihar 20:00etan "Lorca, la correspondencia personal" antzezlana taularatuko dute Berrizko Kultur Etxean. Lorcak maite zituen pertsonei bidalitako gutunek gidatuko dute istorioa. Bi aktorek bideratuko dute narrazioa, Federicok berak hainbeste aldiz laztandu zuen antzerki horren barruan kiribiltzen doan antzerkian. Sarrerak 8 euro balio du (6 euro bazkideentzat).

## eguraldia (EUSKALMET.NET)




## hildakoak

- **Alicia Basurto Bolunburu.** 84 urte. 2018-XI-10.
- **Pepita Garate Gandiaga.** 97 urte. 2018-XI-13.
- **Luis Mª Vegas Ramirez.** 47 urte. 2018-XI-13.
- **Mª Carmen Eizagaetxeberria Atorrasagasti.** 74 urte. 2018-XI-13.

## jaiotakoak

- **Aya El Aarrass.** 2018-XI-10.
- **Irati Perez Larrañaga.** 2018-XI-11.

## farmaziak

Barixakua 16
EGUNEZ **Zulueta** (San Agustin, 5)
Zapatua 17
EGUNEZ **Morgado** (San Agustin, 3)
Domeka 18
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
Astelehena 19
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
Martitzena 20
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
Eguaztena 21
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
Eguena 22
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
Barixakua 23
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI -2018AN-
**Lafuente** (Sostoatarren, 10)

## SUDOKUA

AURREKOAREN EMAITZA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 3 | 9 | 5 | 4 | 1 | 6 | 2 | 7 | 8 |
| 2 | 4 | 7 | 5 | 8 | 3 | 1 | 6 | 9 |
| 1 | 6 | 8 | 2 | 9 | 7 | 4 | 5 | 3 |
| 7 | 1 | 6 | 3 | 2 | 8 | 9 | 4 | 5 |
| 8 | 5 | 3 | 1 | 7 | 4 | 6 | 8 | 2 |
| 4 | 8 | 2 | 9 | 6 | 5 | 3 | 1 | 7 |
| 8 | 2 | 9 | 7 | 4 | 1 | 5 | 3 | 6 |
| 6 | 3 | 4 | 8 | 5 | 2 | 7 | 9 | 1 |
| 5 | 7 | 1 | 6 | 3 | 9 | 8 | 2 | 4 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 2 | 6 | | | 3 |
| | 3 | 9 | | | | | | 6 |
| 7 | | | | | 5 | | | 8 |
| | | | 9 | 3 | | 2 | | |
| 3 | | 5 | | | | 8 | | 1 |
| | | 4 | | 5 | 7 | | | |
| 4 | | | 6 | | | | | 7 |
| 1 | | | | | | 4 | 6 | |
| 9 | | | 4 | 1 | | | | |

## telefono jakingarriak

**SOS deiak**..............................*112*
**Pegora**....................................*010*
**Udaletxea**.................*943 70 84 00*
**Portalea**....................*943 70 84 39*
**Udaltzaingoa**............*943 20 15 25*
**Mankomunitatea**.......*943 70 07 99*
**Debegesa**.................*943 82 01 10*
**KIUB**.........................*943 20 38 43*
**Epaitegia**..................*943 03 34 00*
**Iberdrola**..................*901 20 20 20*
**Naturgas**...................*902 12 34 56*
**DYA Larrialdiak**.........*943 46 46 22*
**Gurutze Gorria**..........*943 22 22 22*
**Mendaro ospitala**......*943 03 28 00*
**Anbulategia**..............*943 03 25 00*
**Torrekua**...................*943 03 26 50*
**Errepideak**................*902 11 20 88*
**Ertzaintza**..................*943 53 17 00*
**Eusko Tren**...............*902 54 32 10*
**Lurraldebus**.............*900 30 03 40*
**Pesa**..........................*900 12 14 00*
**Taxiak**.......................*943 20 30 71*
..................................*943 20 13 25*
**Alkohol.Anon.**...........*629 14 18 74*
**Al-Anon/Alateen**.........*650 26 59 63*
**Grupo Egun Bat (Jugadores Anónimos y Familiares)**...............*699 37 75 20*

## Barixakua 16

**DESFILEA**
**18:00.** El Corte Inglesak babestutako moda desfilea. Atsedenaldian, Untzagako jubilatuen gitarra taldearen emanaldia. Untzagako jubilatu etxean.

## Zapatua 17

**JANTZI NEGUA**
**10:00/19:00.** Errefuxiatuei laguntzeko neguko arropa bilketa, Zaporeak eta CARE-ren eskutik. Untzagako jubilatu etxean (1. pisuan).

**BERAKATZ ZOPA TXAPELKETA**
**11:30.** Eibarko 3. Berakatz Zopa Txapelketa, Eibarko Sarek antolatuta. Untzagan.

**1978-AN JAIOTAKOAK**
**12:00.** Urte horretan jaiotakoen jaia. Zapiak banatu eta taldearen argazkia. Untzagan.

**PAILAZOAK**
**16:30 eta 19:00.** Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen ikuskizun berria: *"Musua"*. Hezkuntza Esparruan.

**DOAKO BISITA**
**17:00.** Erakusketa iraunkorra ezagutzen, doako bisita gidatua, euskeraz. Armagintzaren Museoan.

**UMEENDAKO IPUINA**
**18:00.** *"Ipuin beldurgarriak"*, 6 urtetik gorako umeentzat ipuina, Ilun-ilunaren eskutik. Doan. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

**POESIA**
**18:30.** Poesia errezitaldia, Itzamna poesia tailerraren eskutik. Untzagako jubilatu etxean.

**BISITA**
**18:30.** DBHko ikasleen gurasoentzat bisita gidatua, euskeraz (19:00etan gazteleraz). Indianokua gaztelekuan.

## Domeka 18

**BAKAILAO TXAPELKETA**
**11:00.** XV. Eskolarteko Bakailao Txapelketa. Untzagan.

**PINTXO TXAPELKETA**
**12:30.** Bacalaos Alkorta Eibarko Hiria II. Pintxo Txapelketako finala. Udaletxeko patioan.

**MUSIKA**
**12:30.** Usartza txistulari taldearen kontzertua, Isabel Laspiur pianojoleak, Marisol Arrillaga soinujoleak, Pablo Zubiaurre perkusionistak, Harituz hari-laukoteak eta Molto Vivace metal boskoteak lagunduta. Zuzendaria: Elena Perez. Coliseoan.

**PAILAZOAK**
**16:00 eta 18:30.** Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen ikuskizun berria: *"Musua"*. Hezkuntza Esparruan.

## Astelehena 19

**ELKARRETARATZEA**
**12:00.** Jubilatu eta pentsiodunena, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan (udaletxe parean).



## Erakusketak

**Azaroaren 17ra arte:**
- Santiago Entrenaren **"Desde Oriente hasta Eibar" akuarelak** *(Portalea)*

**Azaroaren 18ra arte:**
- **"Eibarko emakumeen aztarnak" kolektiboa** *(Portalea)*
- **Indalezio Ojanguren XXXI. argazki lehiaketan saritutako eta lehiaketara aurkeztutako beste lan batzuen erakusketa** *(Portalea)*

**Azaroaren 30era arte:**
- **J.L. Irigoienen Pragako argazkiak** *(Klub Deportiboa)*
- **Bakarne Elejalderen argazkiak** *(El Ambigú)*
- **J.A. Palaciosen argazkiak** *(Portalea jatetxea)*

## Martitzena 20

**IKASTEN**
**10:00.** *"Arabiar munduari buruzko egiak eta gezurrak"* hitzaldia, Urko Barrosen eskutik. Armeria Eskolan.

**BISITA**
**16:00/17:00 eta 17:00/ 18:00.** Eibar Ospitalea ezagutzeko bisita, herritar guztientzat zabalik (Eibar.OSIDEBABARRENA @osakidetza.eus helbidera idatzi, datuak eman eta bisitetako ordutegia zehazteko).

**IKASTEN**
**16:00/19:00.** Puntu-tailerra. **17:00/20:00.** Joskintza-tailerra. Portalean.

**KAFE-TERTULIA**
**17:00.** *"Descubriendo a Goya"*, Pagatxa emakume elkartearen eskutik. Unzaga Plaza hotelean.

**AUZO-BILERA**
**19:00.** Udal ordezkariekin bilera, erdi-behealdeko herritarrentzat. Coliseoan.

## Eguaztena 21

**BISITA**
**16:00/17:00 eta 17:00/ 18:00.** Eibar Ospitalea ezagutzeko bisita, herritar guztientzat zabalik (Eibar.OSIDEBABARRENA @osakidetza.eus helbidera idatzi, datuak eman eta bisitetako ordutegia zehazteko).

**SANTA ZEZILIA**
**17:00.** Kalejira, J.B. Gisasola Musika Eskolakoen eskutik. Portalean hasita.

**PROIEKZIOA**
**18:00.** *"Mariposas en el hierro"*, Bertha Gaztelumendiren lan. Portalean.

**HITZALDIA**
**19:00.** *"Importancia del tiempo libre en la 3º edad. Aprendamos a gestionar el tiempo"*, Nagusilanen eskutik. Untzagako jubilatu etxean.

**AUZO-BILERA**
**19:00.** Udal ordezkariekin bilera, Amañakoentzat. Amañako elizan.

**EIBARKO KANTUZALEAK**
**19:00.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

## Eguena 22

**IKASTEN**
**10:00.** *"Kirola, bizitza osorako laguna"* hitzaldia, Julian Gomez Fuertesen eskutik. Armeria Eskolan.

**BINGO BEREZIA**
**16:00.** Bingo berezia. Untzagako jubilatu etxean.

**BISITA**
**16:00/17:00 eta 17:00/ 18:00.** Eibar Ospitalea ezagutzeko bisita, herritar guztientzat zabalik (Eibar.OSIDEBABARRENA @osakidetza.eus helbidera idatzi, datuak eman eta bisitetako ordutegia zehazteko).

**KALEETAN KANTUZ**
**17:00.** Dantza taldearen entsegua (hastapena, beteranoen entsegua 18:00etan hasiko da). **19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

**BELDUR BARIK**
**18:00.** Eibarko Beldur Barik Jaialdia: lehiaketara aurkeztutako bideoen emanaldia, sari-banaketa eta ikuskizuna. Portalean (ikastaro-gelan).

**AURKEZPENA**
**19:00.** *"Hemingway traveler"*. Portalean.

laztanak emoten...
943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.**



Zorionak, PAULE, martitzenian 6 urte bete zenduazen-eta. Laztan haundi bat, pizpiriñori, famelixa guztiaren partez.



Zorionak, EKHI, laztana!, 8 urte egin dozuz-eta! Zelan pasau genduan danok! Patxo bat famelixa eta, batez be, Maddiren partez.



Zorionak, DANEL, astelehenian 8 urte bete zenduazen-eta. Besarkada bat zure gurasuen eta arrebaren partez.



Zorionak, IRATI eta JON, hillaren 13an 7 urte bete zenduezen-eta. Musu haundi bat famelixaren partetik.



Zorionak, NEREA, datorren eguaztenian zure eguna izango dalako. 16 urte azkenian! Zure famelixaren partez.



Zorionak, MAIALEN!, atzo 6 kandela amatau zenduazen-eta. Laztan potolo bat etxeko guztien partetik.



Zorionak, JOSU, astelehenian 5 urte bete zenduazen-eta. Laztan bat zure anaixa Xabier eta famelixa guztiaren partez.

## zineaColiseoan

**(1 ARETOAN)**
**17an:** 19:45, 22:30
**18an:** 20:00
**19an:** 20:30

### "Una receta familiar"
*Zuzendaria:* Eric Khoo




**(2 ARETOAN)**
**17an:** 17:00(1), 19:45, 22:30
**18an:** 17:00(1 Aretoa), 20:00
**19an:** 20:30

### "El fotógrafo de Mauthausen"
*Zuzendaria:* Mar Targarona




**(2 ARETOAN)**
**17an:** 17:00
**18an:** 17:00

### "Luis y los alienígenas"
*Zuzendaria:* Lauenstein anaiak




**(ANTZOKIAN)**
**17an:** 17:00, 19:45, 22:30
**18an:** 17:00, 20:00
**19an:** 20:30

### "Animales fantásticos"
*Zuzendaria:* David Yates



# iragarkilaburrak

Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.


1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa
2. MOTORRA
2.1. Salgai
3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan
4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila
5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak
6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak



943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus


## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Pisua salgai T. Etxebarrian. 3 logela, egongela, jangela, 2 komun eta 2 balkoi. 100 m². Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 649-258913.
– Erreforma osoa behar duen pisua erosiko nuke Eibarren. Tel. 670-793312.
– Errioxako Santo Domingo erdigunean pisua salgai. Berritzeko. Prezio onean. Tel. 675-803734.

### 1.2. Errentan

– Emakumezkoak 2-3 logelako pisua hartuko luke alokairuan. Tel. 665-410232.
– Pisua hartuko nuke Eibarren alokairuan. Tel. 674-401053.
– Buhardila alokagai Ubitxan. Jantzita eta igogailuarekin. Bizitzera sartzeko moduan. 460 euro hilero. Tel. 620-611718.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

– 1999 Volkswagen Passat V 1.9 TDi salgai, egoera onean. Tel. 678-075299.

## 3. Lokalak

### 3.2. Errentan

– Garaje itxia alokagai Ipurua inguruan. Tamaina txikiko edo ertaineko autoarentzat. Goitegia eta garbitegi komunarekin. Deitu 19:00etatik aurrera edo eguerdian. Tel. 656-758793.
– Garaje itxia alokagai Ego-Gainen (udaletxe ostean). Trasteroarekin. Tel. 656-733131.
– Gela balioaniztuna alokagai Errebalen. 33-35 m². Oso argitsua. Tel. 674-277661.
– Bulegoa alokagai Biharrian espazioan. 250 euro, gastuak barne. Tel. 656-440644 (Ander) eta 628-590121 (Irune).

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Emakumea euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Urtetako esperientzia. Tel. 667-376212.
.– Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 631-995976.
– Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 612-476921.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia. Tel. 698-733356.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 626-444649.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 688-642787.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 631-891709.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Erreferentziak. Tel. 943-208107.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 622-677230.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 643-464072.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-642350.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 642-031301.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 631-145986.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 632-411541.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Erreferentziak. Tel. 695-701753.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 631-063561.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Orduka. Tel. 667-034344.
– Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-979555.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak edo garbiketak egiteko. Tel. 631-064889.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna. Tel. 61 2-273591.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Diputazioaren akreditazioarekin. Tel. 667-060292.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Diputazioaren akreditazioarekin. Tel. 602-805869.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Te l. 633-150376.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta baserrian la n egiteko. Tel. 631-680819.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Orduka. Tel. 6 26-197217.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo u meak zaintzeko. Esperientzia handia. Tel. 6 32-271530.
– Emakumezkoa eskaintzen da etxeko garbiketak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 638-793487.
– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak za intzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 612-253 569.
– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Baita asteburuetan ere. Tel. 667-97 1010.
– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Baita asteburuetan ere. Tel. 632-01 3896.
– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-98 7624.
– Emakumezkoa eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 688-712075.
– Emakumezkoa eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. T el. 605-363057.
– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-657380.
– Emakumezkoa eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketak egiteko eta dendari jarduteko. Tel. 632-700803.
– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak za intzeko. Erreferentziak. Tel. 631-956574.
– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak za intzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 688-28 0206.
– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak za intzeko eta garbiketak egiteko. Interna. Tel. 602-827284.
– Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 612-539941.
– Emakumezkoa eskaintzen da goizez edo asteburuetan umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 612-223075.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta igeltsero jarduteko. Tel. 642-327834.
– Emakumezkoa eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 642-328092.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 612-293334.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 656-823897.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 698-505289.
– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Ordutegi malgua, gaua barne. Tel. 605-670094.
– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Eusko Jaurlaritzako akreditazioarekin. Tel. 617-844142.
– Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 616-809926.
– Mutila eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, obretan lan egiteko etabar. Tel. 631-402535.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 656-823897.

### 4.2. Langile bila

– Emakumea behar da etxea eramateko. Interna. Tel. 656-782269.
– Esperientziadun zerbitzaria behar da jatetxe baterako, autoarekin. Tel. 943-121262.
– Mekanika/elektromekanikarako langilea behar da. 5 urtetik gorako esperientzia profesionalarekin. Berehala hasteko. Tel. 943-741480. esarriauto@gmail.com
– Kamarera/o behar da Eibarren barixaku eta zapatu gauetan lan egiteko. Laga curriculuma Anardi tabernan.
– Ileapaintzailea behar da lanaldi erdirako. Tel. 619-928881.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

– Ingeleseko C2 maila duen gazteak klase partikularrak ematen ditu. Esperientzia. Merke. Tel. 690-025579.
– DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Remember disko-maleta saltzen dut. Tel. 629-098723 (Ibon Rojo).
– Arineketan jarduteko zinta salgai. Berria, erabili gabe. Tel. 656-733131.
– Ehizarako bi eskopeta (ia berriak) eta txakurrendako bi kaxa salgai. Tel. 649-258913.




Zure mugak gainditu, zerbait handia aukeratu eta biziki bizi.
Eta horretarako hainbat aukera eskaintzen dizkizu **Hyundai SUV Gama berriak**.
Berriena nahi baduzu, **Hyundai Tucson Berria** aukeratu. Segurtasunean, konektagarritasunean eta prestazioetan puntako teknologia eskainiko dizu.
**Hyundai Kona**-rekin estiloak, konektagarritasunak, abangoardiako diseinuak eta elektrizitateak inspiratuko zaituzte.
Eta azkenik, handiena, **Hyundai Santa Fe Berria**: sofistikazioa, espazioa eta luxua detailerik txikienean ere.
Zuk aukeratu.

**OARSO CAR**
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO
www.oarsocar.com

GRUPO EASO MOTOR

**ELGOIBAR**
**Olaso Polig., 17**
**943 74 14 80**

**OIARTZUN**
**Lintzirin Poligonoa, 1**
**943 49 48 30**

HYUNDAI

5 URTE BERMEA MUGARIK GABE

Hyundai KONA Gama: $CO_2$ emisio konbinatuak (gr/km): 108-160. Kontsumo mistoa (l/100km): 4,1-7,1.
Hyundai TUCSON Gama: $CO_2$ emisio konbinatuak (gr/km): 123-175. Kontsumo mistoa (l/100km): 4,7-7,7.
Hyundai SANTA FE Gama: $CO_2$ emisio konbinatuak (gr/km): 147-215. Kontsumo mistoa (l/100km): 5,6-9,3.

WLTP homologazio-ziklo berriaren arabera lortutako kontsumo- eta emisio-balioak. PSP gomendagarria Penintsulan eta Balearretan Hyundai SUV Gamarentzat: Kona 1.0 TGDI 88,3kW (120CV) 4X2 ESSENCE (13.900€). BEZ, garraioa, matrikulazio-zerga, sustapen-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena eta mantenimendu-eskaintza barne. Hyundai-ra Aldaketa Plana aplika daiteke, Hyundai berri bat erosi baino 6 hilabete lehenago gutxienez, eroslearen titulartasunpean erabilitako auto baten truke. Eskaintza hau aplikagarria da Hyundai MOVE produktuarekin finantzatzen duten bezero partikularrentzat, Banco Cetelem, S.A.U.-ren bitartez, 12.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin. Finantziazioa finantza-erakundeak aztertu eta onartu beharko du. Finantziaziori lotutako gastuak (komisioak, interesak edo Aseguru-programak) ez daude barne; horiek www.hyundai.es/configurador web-ean kontsultatu daitezke. 15.400€ finantzatuko ez duten bezeroentzat PSP gomendagarria. Eskaintza 2018/11/30ra arte da baliozkoa. Ikusten diren modeloak: Tucson Style, Kona Style eta Santa Fe Style (hagunak osagarri gisa soilik eskuragarri). Mantenimendua autoaren finantziazioari lotuta. Hyundai Motor España S.L.U-k bere bezeroei eskaintzen dien kilometraje-mugarik gabeko 5 urteko berme komertziala Hyundai sare ofizialean saldutako ibilgailuei soilik aplikatuko zaie, zerbitzu-pasaportearen arabera. Kontsulta ezazu eskaintza, mantenimendu eta bermearen baldintzak Hyundai kontzesionario-sarean edo www.hyundai.es helbidean.








20 urte baino gehiago zurekin.



Profesional talde handi bat zure irribarrea zaintzen.



Zure irribarre onena geure laborategian diseinatzen dugu.

R.P.S. 123/17

bista eder

clinica dental - hortz klinika

**Deitu** | 943 70 00 82

bista eder, 19 - bajo 20600 eibar

www.bistaeder.es